



ORIO
marea bizian

| Euskara

LITERATUR LEHIAKETA 2022



ESKOLA-UMEEN
**LITERATUR
LEHIAKETA**
2022



Azala: Alaine San Sebastian Vitoria
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

Aurkibidea

<i>Hitzaurrea. Libe Larrarte</i>	5
<i>Urtaroak. Laize Saizar Berasaluze</i>	7
<i>Liburua irakurri eta gero...</i> Rehan Muhammad	9
<i>Aitona Kepa. Amets Loidi Etxabe</i>	9
<i>Xingola. Arhane Fuentes Mugika</i>	11
<i>Mundua. Aiora Amonarriz Huegun</i>	15
<i>Argia. Aiora Palau</i>	15
<i>Klima zaintzeko moduak. Aimar Lertxundi</i>	17
<i>Magia eskolan. Maren Larrarte Juan</i>	19
<i>Natura. Eñaut Beaumont Balerdi</i>	27
<i>Robot City. Irati Sarasketa Ajvari</i>	29
<i>Amodioa. Shua Aranzasti Iturbe</i>	37
<i>Koloreak. Iraia Peña Fernandez</i>	39
<i>Amerikar bat Euskal Herrian. Adur Garmendia Leunda</i>	41
<i>Kristalezko hiria. Iraia Peña Fernandez</i>	44
<i>Arrauna. Inhar Gastiain</i>	49
<i>Koronabirusa. Etxahun Sukia</i>	50
<i>Injustizia. Martxel Uribarri</i>	50
<i>Fin. Kattalin Agote</i>	57
<i>Katarroa. Usua Azkue</i>	61
<i>Itsasoa. Hodei Gastiain</i>	63
Lilliana James & August II.aren	
<i>urrezko erloju galdua. Maddi Etxeberria</i>	63
<i>Zeruko txoriak. Irati Olaizola</i>	73
<i>Geurea bizia. Edith Goenaga</i>	79
<i>Denbora. Amaiur Sukia</i>	80
<i>Aggie Kristie eta ezinezko kasua. Uxue Etxeberria</i>	81
<i>Miren. Klara Puertas</i>	87
<i>Hezkuntzari kritika. Kattalin Zinkunegi</i>	91
<i>Herriko plaza. Unai Lertxundi</i>	92
<i>Rec_23871. Itxaso Ayerbe Cisneros</i>	93

Hitzaurrea

Uste dut lehiaketa hau irabazi nuen lehen aldia nire lehengusu zaharrean inspiratutako ipuin batekin izan zela. *Beñat eta ez dakit zer* zuen izena. Ez dut istorioa gogoratzen, baina badakit eskolako azterketa batean kopiatu egiten zuela edo horrelako txorakeriaren bat. Mutil bihurri bati buruz idatzi nahiko nuen... Auskalo! Aurrerago, Portugalen kokatzen zen zerbait idatzi nuen, Salazarren diktadura garaian, eta protagonista gizon heldu bat zen; aitona zahar bat, hobeto esanda. Duela ez asko gogoratu nintzen horretaz, eta flipatu egin nuen. Noiztik interesatzen zitzaidan Salazarren diktadura? Nik dakidala, inoiz ez zidan gaiak minimoki erakarri. Eta nola okurritu zitzaidan aitona zahar baten azaletik idaztea? Hain arrotza ikusten dut orain!

Kontua da itxura egiten ari nintzela, gezurtera bat nintzela. Erakutsi nahi nuen klasean kopiatzen zuen mutil gaiztoa izan nintekeela edo diktadura bat bizi izan zuen gizon zahar bat. Eta gai internazionaletan aditua nintzela, bide batez. Eta ez nintzen horietako ezer, noski; alderantziz.

Eta ez nuen kontzienteki egingo, baina gizonezko idazleak bakarrik irakurriko nituen orduan, seguru. Eta gizonek bezala idatzi nahiko nuen, dudarik gabe. Neska gazte baten ikuspuntua —edo emakume heldu batena, berdin dio— guztiz baztertuta nituen. Pentsaezina irudituko zitzaidan zerbait interesgarria kontatu zitekeen ikuspuntu horretatik. Gutxietsi eta mespretxatu egingo nituen txikitatik, konturatu ere egin gabe.

Orain, kontzienteki eta preferentzia pertsonal batetik, emakumezko* idazleak irakurtzen ditut gehienbat eta, zerbait idazten badut, lehenengo pertsona femeni-noa erabiltzen dut ia beti, horrela ateratzen zaidalako.

Esan nahi dudana da, eta oso jakina emango du baina nik denbora behar izan dut konturatzeko, nahi denari buruz idatzi behar dela, benetan kontatu nahi denari buruz, eta bakoitzari irteten zaion ahotsetik. Bestela, nabaritu egiten da.

Libe Larrarte


Urtaroak

Gustura jaten dut nik
pila bat sagarra,
gustura egongo da,
bai, baserritarra.
Botika urdina baino
hobiago harra...
Horrexek ematen dit
kristoren indarra.

Baita ere gustatzen zait
niri udaberria,
loreak ikusita
sortzen zait parria.
Aitonak erosi du
aitzurra berria,
kukua entzuteko
adi belarria!

Udaberria ondoren
badator udara,
lagunekin joango naiz
korrika hondartzara.
Hantxe harrapaketan
jolastuko gara,
eguzkitan etzanda,
ai, zenbat zirrara!

Laize Saizar Berasaluze



Maddi Iribar Fernandez

Liburua irakurri eta gero...

Liburua irakurri eta gero,
edan dut zukua,
orain sentitzen naiz
adimentsua.
Arratsaldean aurkitu dut
pinaburua,
eta pentsakor geratu da
nire burua.

Rehan Muhammad

Aitona Kepa

Bazen behin Amets izeneko mutiko bat. Amets arrantzara joaten zen larunbate-tan bere aitona Keparekin. Txalupa urdina zuen aitonak, eta barrutik txuria zen. Aitonak gauza asko erakusten zizkion: arrainen eta izarren izenak, korronteak nola ibiltzen ziren, ibaiari buruzko gauzak... baina Ametsi gehien gustatzen zitzaiona zen esku-argia hartu eta aitonarekin jolastea mezuak bidaltzen.

Udako larunbat batean, biak arrantzara joan ziren, beti bezala. Zarautz aldera joan ziren. Bat-batean, Ametsek esan zuen:

—Aitona! Aitona!

Baina aitonak ez zion kasurik egin.

—Aitona! Begira! Arrain bat harrapatu dut!


Baina aitonak ez zion kasurik egin. Ametsek atzera begiratu zuen eta ikusi zuen aitona lurrean zegoela. Oso urduri jarri zen. Orduan, Itsaso kaioari deitu eta laguntza eskatu zion. Kaioa askotan joaten zen beren txalupara. Handik pixkatera, DYAko txalupa bat etorri zen:

—Zer gertatu da?

—Aitona lurrean dago eta ez da mugitzen!

Begiratu zuten eta batek esan zuen:

—Zure aitona hilda dago.



Arlane Gonzalez Allende

—Eta zer gertatuko da?

—Ba, aitona ez duzula gehiago ikusiko.

Ametsek bi egun pasatu zituen negarrez. Gero, pentsatu zuen Itsasori deitzea, galdetzeko ea nahi zuen berarekin arrantzara joan larunbatetan. Kaiok esan zion baietz. Aitonaren amuekin txalupa urdinean joaten hasi ziren.

Egun batean, Ametsek txitxarro bat harrapatu zuen, eta bere amona Arantxaren etxera joan zen bazkaltzera; aitonarekin ere gauza bera egiten zuen txitxarroa harrapatzen zutenean.

Gauean, Amets ohera joan zen eta Oninen liburua irakurtzen hasi zen. Bat-batean, leihotik esku-argi batekin mezua iritsi zitzaion: «Amets! Aitona Kepa naiz, eta oso ondo nago. Badakit arrantzara joaten zarela Itsasorekin, eta gaur txitxarro bat harrapatu duzuela. Ondo segi!»

Gau hartan, Ametsek amets polit-politak egin zituen.

Amets Loidi Etxabe

Xingola

Bazen behin herri txiki bat...

Larunbat batean Arhane paseatzen zebilen bere amarekin eta denda bateko erakusleihoan xingola bat ikusi zuen. Xingola oso-oso polita zen: handia, gorri kolorekoa eta oso distiratsua; korapilo handi-handia zuen erdian. Inoiz ikusitako xingolarik politena zen!

—Ama, ama! Xingola hori nahi dut!

—Zure urtebetetzean oparituko dizut!

Arhane oso pozik jarri zen, zeren bere urtebetetze-egunerako hiru egun bakarrik falta baitziren.


Hurrengo egunean, Arhane ogi bila joan zen okindegira:

—Atzo plazako dendan lapurrak sartu ziren! —esan zuen dendariak.

—Eta zer lapurtu zuten? —galdetu zion emakume batek.

—Erakusleihoan zegoen xingola gorri bat.

Arhane oso triste jarri zen, baina ez zen geldirik geratu eta, ziztu bizian, lapurraren bila joan zen.



Karen Aranzasti Iturbe

Plazara joan zen. Izkin batean pago bat zegoen eta Arhane hara hurbildu zen, jende asko zegoelako. Bat-batean, xingola ikusi zuen.

—Pagoa, nondik atera duzu xingola hori?

—Haizeak oparitu dit. Egun haizetsuetan nire hostoak lurrera botatzen dizkit, eta horregatik eman dit.

Pagoa oso pozik zegoen xingolarekin, zeren jende asko joaten baitzen ikustera eta ez zen bakarrik sentitzen. Orduan, Arhanek pentsatu zuen mendira joatea, zeren eta, gurasoekin mendira joaten zenean, haizea han egoten baitzen askotan. Tontorrera iritsi baino lehen, loreak mugitzen ari zirela konturatu zen eta haizea han zegoela pentsatu zuen. Azkar-azkar gerturatu zen hara eta galdetu zion haizeari:

—Non lortu zenuen Pagoari oparitutako xingola?

—Kalean nengoela, Kika beleari lurrera erori zitzaion. Hartu eta pagoari eman nion.

—Eta nondik zetorren Kika?

—Ez dakit, baina azkar zebilen, ihes egiten ariko balitz bezala.

Bat-batean, haizeak esan zuen:

—Begira, hor dago Kika! Harkaitz horren gainean!

—Zergatik lapurtu zenuen xingola, Kika? —galdetu zion Arhanek, haserre biazian.

—Duela hiru egun nire urtebetetzea izan zen eta inork ez zidan ezertxo ere oparitu. Oso triste nengoen eta horregatik lapurtu nuen xingola.


—Orain pagoak dauka.

Haizeak azaldu zion pagoari gertatu zena. Azkenean, xingola erakusleihoan zegoen berriro:

—Tori, Arhane, oparia! —esan zion amak urtebetetze-egunean.

Oso-oso pozik jarri zen Arhane. Gero, itsulapikotik dirua hartu eta partxis bat erosi zion Kika beleari, eta gorbata dotore bat pagoari.

Arhane Fuentes Mugika



Alain Peña Fernandez

Mundua

Mundua zikin dago,
ez dugulako zaintzen.
Mundua zikin dago,
gauzak lurrera ditugulako botatzen.
Mundua ederra da,
jendea delako bizitzen.

Mundua zaindu behar dugu,
jendea ondo egoteko.
Mundua zaindu behar dugu,
gure bizitokia delako.

Aiora Amonarriz Huegun

Argia

Polita, oso polita, zure argia,
esnatzen naizenean.
Ikusten dut zeruan Eguzkia,
Ilargia gauean.
Argiak du distira,
nire bihotzean.

Aiora Palau



Lur Larrarte

Klima zaintzeko moduak

Klima oso gai garrantzitsua da eta ondo zaindu behar dugu. Klima zaintzeko, saiatzeari argindarra gutxiago gastatzen eta ke gutxiago botatzen.

Bazen behin ume bat, Raplos herrian, ikastolan oso ondo pasatzen zuena. Baina, egun batean, jolasten ari zela, bere lagunak moskito bat hil zuen. Berari ez zitzaion gustatu eta haserretu egin zen. Lagunari esan zion moskitoak ez zirela hil behar, baina hark barre egin zion.

Behin eta berriz errepikatu zion. Asteak eta asteak pasatu zituen lagunari esaten hori txarra zela; baina, kasurik egiten ez zionez, ideia bat izan zuen: moskito-gela bat osatuko zuen Raplosen, herriko moskito guztiak bilduta.

Martxan jarri zen eta Raploseko moskitoak harrapatzen hasi zen. Botila batean gordetzen hasi zen.

Hurrengo egunean, ikastolara joan zenean, lagunari esan zion ezin zutela moskito gehiago hil, berak zeuzkan-eta guztiak. Erakutsi zion botila eta sinetsi zioten.

Azkenean, lagunek talde bat osatu zuten Raplosen, zabor guztia zaborretara botatzeko eta plastikoak, kristalak eta paperak bakoitza bere edukiontzira. Erregai gutxiago gastatzeko, kotxearen ordean autobusak erabiltzea erabaki zuten Raplos herrian.

Horrela, urte bat-edo aritu ziren eta lortu zuten natura asko zaintzea. Baina behin, gelako lagun batek esan zuen berak bere kotxea erabiliko zuela, ez zitzaizola axola erregaia gastatzea eta kearekin kutsatzea.

Denak triste jarri ziren erabaki hori hartu zuelako. Hala ere, ez zuten amore eman eta jarraitu zuten autobusa erabiltzen eta kotxe elektrikoak gidatzen.


Mundu osoan klima perfektua zegoen. Egindako lan guztiak fruitu eman zuten eta dena eginda zegoen munduan.

Handik hilabete batzuetara, aurreko gelakide berak ikastolako argia piztuta utzi zuen eta gero beti piztu egiten zuen, behar ez zenean ere. Gainera, andereñoa ez zegoenean, argiarekin jolasten ibiltzen zen, beti itzali eta piztu.

Hasieran ez zioten kasu handirik egin, aspertuko zelakoan. Baina berdin jarraitzen zuen, behin eta berriz, eta denak nazkatu egin ziren.

—Ezin duzu horrela jarraitu, beti argia alferrik pizten. Ez da ona inorentzat. Ez zaigu gustatzen —esan zioten.

—Niri natura txorakeria bat iruditzen zait eta horrela jarraituko dut!



Mai Zugasti

Baina, egun batean, mutikoak arrazoi eman zien eta talde hark lortu zuen ikastetxe osoa ados jartzea.

—KLIMA ZAINTZERA! —esan zuten.

Eta, hala bazan eta ez bazan, klima zaintzera Raploseko plazan!

Aimar Lertxundi

Magia eskolan

Kaixo! Nik Leila izena dut, eta Izarri izeneko herri txiki-txiki batean bizi naiz. Nire ametsa magia ikastea izango zen. Hain *guaia* da magia! Bueno, orain nire lagunak zein diren esango dizuet.

Lagun asko dauzkat eta haietako bat Lili da. Orain kontatuko dizuet nolakoa den. Liliri asko gustatzen zaio arrosa kolorea. Bere animaliarik gustukoena katua da; etxean katu bat dauka, Oli izena duena. Liliri asko gustatzen zaio marraztea, niri bezala.

Bueno, orain nire beste lagun bat nolakoa den kontatuko dizuet. Nire bigarren lagunak Jack du izena. Oso jatorra da. Jacki asko gustatzen zaio liburuak irakurtzea eta, etxe handi-handia daukanez, liburutegi eder bat du. Jacki asko gustatzen zaizkio elefanteak eta dinosauroak.

Orain hirugarren laguna deskribatuko dizuet. Nire hirugarren laguna ere oso jatorra da. Katy du izena. Oso azkarra da eta asko gustatzen zaio gimnastika erritmikoa egitea eta, gainera, oso ona da horretan. Bere animaliarik gustukoena pantera da. Ezagutu nuenean, ez nekien zergatik; baina, korrika ikusten duzunean, ulertzen duzu.

Bueno, jada kontatu dizuet nolakoak diren nire lagunak. Orain parkera joan behar dut, zeren Lili, Jack eta Katyrekin geratu bainaiz 16:30ean. Agur! Parkean elkar ikusiko dugu!


Parkean lagun denak azaldu gara, bat kenduta. Katy falta da, eta Lilik, erlojuari kezkatuta begiratu, esan du:

—Non dago Katy? Jada 16:45ak dira!

Hirurok gaude kezkatuta, Katy non egongo den pentsatzen.

Bat-batean, Lilik esan du:

—Badakit Katy non egon daitekeen!



Sofia Generalova

—Non? —galdetu du Jackek.

—Basoan, bere leku gustukoena da-eta. Beti joaten da basora korrika egitera.

—Ba, goazen basora, ezta? —esan dut.

Orduan, Lili, Jack, eta ni basora joan gara. Basoan sartu gara, baina Katy ez dugu inon ikusten.

—Katy! —egin dugu oihu hirurok batera. Baina inork ez du erantzun.

Bat-batean, Lili desagertu egin da.

—Non dago Lili? —galdetu du Jackek.

Orduan, Jack eta ni zulo ilun-ilun batean erori gara.

—Hau beldurra! —esan dut.

Zulo ilun hartatik atera eta, gure begi aurrean, eskola zahar-zahar bat ikusi dugu. A! eta Lili ere hor dago.

—Sartu egingo gara, ezta? —galdetu dut.

—Bai, zera! Leku horrek izugarritzko beldurra ematen dit —esan du Lilik.

—Benga, Lili! Utzi beldurrak eta goazen barrura —esan du Jackek.

Orduan, eskola zahar-zahar hartan sartu eta Katy ikusi dugu, soka handi eta zahar batzuekin lotuta, mahai baten kontra.

Katyk oihu egin du:

—Lagunduuu!

Eta nik erantzun diot:

—Bai, jakina! Oraintxe goaz laguntzera!

Katyrengana abiatzen ari garela, ahots zahar bat entzun dugu.

—Nor dabil hor? —galdetu du ahots zakar batek, guregana hurbilduz.

Guregana ailegatu denean, oso beldurtuta gaude denok.

—Kaixo! Nola duzue izena? Ni Polo naiz.

Hori entzunda, lasaitu ederra hartu dut. Bueno... nik eta, uste dut, nire lagunek ere ere bai.

—Kaixo! Gu Lili, Katy, Jack eta Leila gara —esan diot.

—Pozten naiz zuek ezagutzeaz. Denbora asko daramat hemen bakarrik inor ikusi gabe —esan du Polok.



Lur Guenetxea

—Ni ere pozten naiz zu ezagutzeaz. Zurea al da eskola hau? —galdetu dio Lilik.

—Bai, hau dena nirea da, baina jada ez du ezertarako balio... Lehen jende pila etortzen zen nire eskola magikora, baina orain inor ez —kontatu digu Polok.

—Eskola magikoa? Hori nire betiko ametsa izan da! —esan diot.

—Bai, oso dibertigarria da magia. Baina, eskola hau itxi zenetik, jada ez dago magiarik munduan —esan du Polok.

—Eta zergatik itxi zen? —galdetu du Lilik.

—Ba, gero eta jende gutxiago etortzen zen eta, egia esan, lekua... inori ez zaio zulo ilun horretatik jaitea gustatzen. Gainera, oso zaharra dago eskola —esan du Polok.

—Ba, guk lagunduko dizugu eskola hau txukuntzen, magia berriz berreskuratzekeo —esan diot.

—Bai, hori da! Bihar etorriko gara. Ados? —esan du Jackek.

—Bai, ados! Orduan, bihar 16:00etan —esan du Polok.

Denok urduri gaude: nola lagundu, zer eraman ikastola hori konpontzeko...

Tira... azkenean hurrengo eguna iritsi da eta gu ikastola konpontzera joan gara.

—Kaixo denoi! —esan du Polok.

—Bai, kaixo!

—Atzo gauza bat esatea ahaztu zitzaidan: ikastola konpontzea ez da hain erraza izango —esan du Polok aurpegi tristearekin.

—Zergatik? —galdetu diot.

—Lehen ez nintzen ikastola honetako irakasle bakarra; beste irakasle bat ere bazegoen. Klaus izena du. Hasieran oso ondo konpontzen ginen, baina, ikastola itxi behar izan genuenean, nire etsaia bihurtu zen —esan du Polok.

—Zergatik? —galdetu dut.

—Ez dakit. Baina edozein unetan etor daiteke eskola puskatzera.

Eskola konpontzen hasi gara eta lan asko egin dugu. Bat-batean, ordea, zer eta Klaus etorri da bere pentsamendu maltzurarekin.

—Polo, aspaldiko! Ikusten dudanez, lagun berriak egin dituzu; baina, halere, eskola hau inbadituko dut —esan du Klausek.

—Ez! Hori ez da inoiz gertatuko —erantzun dio Polok.

—Hori ikusiko dugu! —esan du Klausek.



Hassan Ali Shaheen

—Bale! Erronka bat egingo dugu, hagaxka magikoarekin!

—Ados! Has gaitezen!

Ni eta nire lagunak beldurturik gaude, zer gertatuko den jakin-minez. Batean, Polok hagaxka magiko bat eman dit.

—Zertarako eman didazu hau? —galdetu diot.

—Magia egin eta Klausiri irabazteko —esan du Polok, beste guztiei ere hagaxka magiko bana banatzen dien bitartean.

—Ondo da! Denok batera Klausiri irabaziko diogu! —esan du Katy.

—Baina zer egiten dute hagaxka hauek? —galdetu du Lilik.

—Ba... ea ondo gogoratzen naizen... A, bai, badakit! Kolore arrosakoak hegan egiteko ahalmena ematen dizu, urdinak gauzak izotz bihurtzeko ahalmena, horiak etorkizunera bidaiatzekoa, eta berdeak superindarra ematen dizu —esan du Polok.

—Ondo da. Zeren zain gaude? Goazen ikastola berreskuratzerara!

Gogo biziz nago. Guk bakarrik gainditu behar dugu Klaus; hau da, Poloren laguntzarik gabe. Katy bere superindarra erabiltzen hasi da; Lilik, hegan egiteko ahalmena; Jackek, gauzak izotz bihurtzekoa; eta nik, etorkizunera bidaiatzekoa.

Katy superukabilkada bat eman dio Klausiri. Min handia egin dio eta gu oso pozik jarri gara. Baina hark ere badu superbote bat. Bueno... bat baino gehiago ditu. Asko ditu: hegan egitekoa, sua egitekoa... eta gehiago ere bai. Klausen ordua iritsi da.

Klauserik superzaplatzekoa eman dio Katyri, baina, Katy indartsua denez, ez dio ia minik eman. Liliren ordua iritsi da, orduan, eta, hegan doala, ostiko bat eman dio Klausiri. Klauserik ezer egin baino lehen, guk aurrea hartzea pentsatu dugu eta ekin egin diogu: Jackek izotza bihurtu du Klaus eta, errematatzeko, nik etorkizunera bidali dut, 2029. urtera.

Amaitu dugu, beraz, eta Klaus gainditu dugu. Irabazi egin dugu.

Polo, nire lagun guztiak eta ni oso pozik jarri gara.

Egun batzuk geroago, eskola berri dugu eta lortu dugu magia berreskuratzea. Gu egunero joaten gara eskolara, Polo ikusterara, 16:45ean.

Agur! Hurrengo ipuinean ikusiko dugu elkar. Orain parkera joan behar dut azkar, Katy, Jack eta Lili ikusterara.

Maren Larrarte Juan



Iare Garagarza Ormaetxea

Natura

Bazen behin neska bat, Amalur izena zuena. Natura asko gustatzen zitzaion: animaliak, landareak... Ez zien beldurrik animaliei, baina bere etxea hirian zegoen eta ez zekien nolakoa zen basoa. Horregatik, egunero joaten zen liburutegira, naturari buruzko liburuak irakurtzera.

Hainbat urte pasatuta, Amalur handia egin zen eta baserri bat erosi zuen basoan. Animalia asko zituen: txerriak, txakurrak, oiloak eta baita untxiak ere. Amalur oso pozik zegoen.

—Ze polita den etxe hau! —esaten zuen.

Egun batean, lagunak gonbidatu zituen afaltzera. Lagunak ailegatu eta jaten hasi ziren, pizza.

—Amalur, oso pizza ona egin duzu! Eskerrik asko! —esan zuen lagun batek.

Berandutu zenez, lagunak Amalurren etxean gelditu ziren lo egitera. Hurrengo egunean gosalduta eta, ondoren, lagunak etxera joan ziren.

Amalur lasai zegoela, zerbait entzun zuen. Basora atera eta ez zuen ezer ikusi. Etxetik urruntzen hasi zen eta otsoak ikusi zituen.

—Ze politikak diren! —esan zuen Amalurrek.

Otsoak urruntzen hasi ziren eta Amalurrek jarraitu egin zien. Kobazulo bat ikusi zuen eta barruan otso gehiago zeudela ikusi zuen. Hasieran, beldurra zuen, baina ikusi zuen otsoak ere beldurtuta zeudela. Otso bat gerturatu zitzaion eta usaindu egin zuen. Hori egin eta gero, lagunak egin ziren. Afaltzeko ordua zen eta Amalur etxera joan zen. Hurrengo egunean, Amalur berriz joan zen kobazulora, baina otso bat bakarrik zegoen, bere laguna egin zena. Otsoa korrika joan zen basorantz eta Amalur haren atzetik. Basoan ehiztariak zeuden eta gainerako otso guztiak kaiola batean zeuzkaten. Amalurrek, hori ikusita, ez zekien zer egin, baina, bat-batean zerbait bururatu zitzaion: harri bat hartu eta sasi batzuetara bota zuen. Ehiztariak beste otso bat izango zela pentsatu zuten eta begiratzera joan ziren. Amalur eta bere lagun otsoa kaiolara gerturatu, giltza hartu eta ireki egin zuten.

Otso guztiak kobazulora bueltatu ziren eta han bi hartz aurkitu zituzten.

—Ai, ene! Ze beldurra! —esan zuen Amalurrek.

Otsoek ezin zuten hartzen kontra borrokatu, oso ahul zeudelako, egunak zermatzaten-eta ezer jan gabe. Orduan, Amalurrek esan zuen:

—Goazen denok nire baserrira.

Otsoek baietz egin zuten buruarekin.



Hegoa Antero Grefa

Baserrira ailegatu zirenean, Amalurrek emandako haragia jaten hasi ziren. Amalurrek ezin zuen haragia jan, alergia zuelako. Bazkaldu eta gero, Amalur sofán eseri zen eta bat-batean etxeko tinbreak jo zuen. Amalurrek begiratu egin zuen, jakiteko zein zen, eta bere gurasoak zirela ikusi zuen.

—Azkar, ezkutatu! —esan zien Amalurrek otsoei.

Amalurrek atea ireki zuen eta gurasoak etxera sartu ziren. Sartu eta gutxira, eztula entzun zen.

—Zer izan da hori? —galdetu zuen amak.

—Ni izan naiz, ama. Eztula daukat! —esan zion Amalurrek.

Gurasoak Amalurrekin merienda hartu zuten eta, berarekin pixka bat egon ondoren, joan egin ziren. Orduan otsoak ezkutalekutik atera ziren.

Amalurri logura sartu zitzaion eta sofán etzan eta lo gelditu zen. Esnatu zenean, baserriko txakurrak zaunka ari ziren. Amalur txakurrengana joan zen, baina ez zuen ezer ikusi, laino itxia zegoelako. Bat-batean, lainoak desagertu eta bi ehiztari ikusi zituen etxe aurrean.

—Otsoak gureak dira! —esan zuen ehiztari batek.

—Otsoak ez dira inorenak! Otsoak basoan libre bizi dira! —esan zuen Amalurrek.

Bi ehiztariak otsoz inguratuta zeuden, jan eta gero indarberrituta baitzeuden. Ehiztariak, beldurtuta, kotxea hartu eta joan egin ziren.

Otsoak basora bueltatu ziren, beren kobazulora. Han bizitzen jarraitu zuten, baina noizbehinka Amalurren etxera joaten ziren bisitan.


Eñaut Beaumont Balerdi

Robot City

Kaixo! Ni Erika naiz. Atzo 2030eko martxoaren 2a zen eta sekulako aldaketa izan nuen nire bizitzan.

Ni txikia nintzenean, herri arrunt batean bizi nintzen, baina denborak aurrera egin du eta gaur egun ez dut nire herria ezagutzen. Guztiz aldatuta dago eta ba al dakizue zeinek aldatu zuten nire herria? Ba, bai, robotek!

Gehiago jakin nahi baduzue, segi irakurtzen eta ongi etorri Robot City-ra!



Ekai Makazaga Eizagirre

Nire familiari asko gustatzen zaizkio robotak, eta niri, ba... ez gehiegi.

Robotak gure bizitzan agertu zirenetik ez didate kasu handirik egiten, nahiago dituzte robot kaxkar horiek.

Ez da justua! Ikusiko dute nola, azkenean, gure burmuinaren jabe egingo diren!

—Erika! Non zaude?

—Nire logelan nago —esan nion amari, ez oso atsegin.

—A! Hemen zaude, maitea —amak eskua jarri zidan sorbaldan—. Joango al gara buelta bat ematera?

—Zer, robotekin?

—Ez. Robotak janaria prestatzen geratuko dira, gu etortzen garenerako.

—Jakina! Nola ez?

—Primeran! Bueno... joan hortzak garbitzera, sorpresa bat duzu-eta hantxe.

—Sorpresa bat? Ze arraro! —esan nuen, susmo txarrez.

Komunera bidean, zer zen pentsatzen jarri nintzen eta, heldu nintzenean...

—Falta zitzaidana! Hortzak garbitzeko robot bat! Ama!

—Bai, bihotza, gustatu al zaizu sorpresa?

—Bai, jakina! —esan nuen, ama ez mintzeko—. Baina non dago nire beste hortzetako eskuila?

—A! Zaborretara bota nuen, oso zikina zegoen-eta. Baina zeinek behar du hori, aurrean hortzak garbitzeko robot bat duzunean?

—Jakina! A, ze txorakeria!

—Bueno, ba, disfrutatu! —esan zuen amak komuneko atetik ateratzean.

—Baina zer da hau? Erotu egingo naute azkenean!

10 minutura, kalean geundela, edozein lekutara begiratzen nuela, robotak besterik ez nituen ikusten.

Bat-batean, eraikin bateko pantaila handian, alkatearen aurpegia agertu zen, eta zer edo zer esan nahi zigun.

—Herritar maiteak! Egun zoragarria da nik sortu ditudan Rib Rop robot berriak aurkezteko. Ez galdu denbora gehiago eta zoazte nire biltegiara, han familiako kide berria zain duzuelako.

—Zer? Robot berriak? Hau ezin da okerragora joan!

—Erika! Goazen oraintxe bertan, bestela kola izugarria egongo da-eta! —esan zidan amak.

—Benetan, ama?

—Bai! Benga, goazen!

Iritsi ginenerako, kola zegoen jada, baina amari ez zitzaion axola. 20 minutu pasa ziren eta oraindik ia leku berean geunden.

—Ama, komunera noa!

—Badakizu non dagoen?

—Bai.

Komunera nindoan eta ate batetik pasa nintzen. Ez nion garrantzirik eman, baina gero ahots ezagun bat entzun nuen. Atera begiratu eta alkatea ikusi nuen, robot erraldoi batekin berriketan ari zela.

—Oso ondo! Robot asko saltzen ari gara eta, beren jabeekin etxean daudenean, sunsitzeko momentu bat aurkituko dugu eta, txip batzuk ezarriz, nire esklabo bihurtuko ditugu —esan zuen alkateak ahots maltzurrarekin.

—Ai, ama! Amari esan behar diot ez erosteko robot gehiago!

Korrika joan nintzen ama zegoen tokirantz, baina zerbaitekin egin nuen estropezu eta lurrera erori nintzen. Azkar-azkar malkoak kendu eta berriro korrika jarraitu nuen. Iritsi nintzenean, amari kontatu nion dena, baina berak ez zidan sinetsi.

—Ez esan gezurrik, mesedez.

—Baina egia da!

—Nola izango da egia? Agian, imajinatu egin duzu!

—Egia dela, ama! Sinetsidazu, behingoz!

—Begira, Erika... Hori txorakeria bat da. Agian, etxera joan behar duzu atsedean hartzera.

—Ez, ama! Ondo nago, benetan.

—Bueno, robotari deituko diot zu etxera eramateko.

Robota etorri zenean, zuzenean etxera eramanez ninduen. Baina ez nintzen eserita geratuko. Herri guztia arriskuan zegoen eta nik konponduko nuen guztia. Ez nekien oraindik nola, baina ziur nengoen lortuko nuela.

Bi ordu eta erdi geroago, nire ama etorri zen robot berriarekin, ni telebista ikusten ari nintzela.

Robota aztertu nuen, baina ez nion ezer arrarorik ikusi. Bat-batean, ura edateko gogoa etorri zitzaidan eta altxatu egin nintzen, baso bat ur hartzeko, eta robota niri begira geratu zen, zer edo zer gaizki egin izan banu bezala.

Basoa hartu eta egongelara abiatu nintzen, baina zerbaitek geldiarazi ninduen: robotaren atzean «20 ordutan suntsitzea» jartzen zuen.

Hori ikustean, beldurtu egin nintzen eta zerbait egin behar nuela pentsatu nuen.

Gaua heldu zen behingoz eta plan bat nuen. Ez zen oso ona, baina, dena ondo ateratzen bazen, lortuko nuen.

Momentua heldu zen: herria salbatzeko momentua. Leihotik ihes egin nuen eta alkatearen biltegira abiatu nintzen. Espioi bat bezala sentitzen nintzen, baina hura ez zen jolasteko momentua. Azkenean, barrura sartzea lortu nuen, ileko gantxo bat erabiliz.

Gero, kontrol-zentrora abiatu nintzen eta han botoi piloa zegoen. Orduan, nire ingurura begiratu eta robot handi batekin topo egin nuen. Beldur pixka bat sartu zitzaidan, baina, robotari begira, beste plan bat etorri zitzaidan burura.

Aurkitutako robota azkar ibiltzeko diseinatuta zegoen eta, gainera, ez zuen jartzen sunsituko zenik. Horregatik, robot hura erabiliko nuen besteen etxeetara sartzeko eta robot guztiak hartzeko.

Robota itzalita zegoen, baina eskerrak nik banekiela pizten.

—Eta orain, bai... goazen herria salbatzera!

Bat-batean, alkatearen ahotsa entzun nuen...

—Ai, ama! Alkatea esnatu dut —esan nuen beldurtuta—. Benga! Goazen, txatarra! —esan nion robotari.

—Nor dago hor? —galdetu zuen alkateak oso haserre eta, gero, bere robotari deitu zion.


—Bob!

—Bai, jauna! —esan zion robotak errespetuarekin.

—Ez al zara zu atea zaintzen duena?

—Bai, jauna!

—Eta nola demontre sartu dira nire etxean?



Unai Goikoetxea Gaztelumendi

—Ez dakit, jauna, baina ez dira atetik sartu.

—Nola sartuko dira atetik? Lapurrak ez dira tontoak, baina zu lapurrak baino azkarragoa izan behar duzu. Eta, orain, joan pistak bilatzera, lapur horrek ez du alde egin behar-eta!

—Bai, jauna!

—Eta ez deitu jauna!

Robota pistak bilatzera joan zen eta kontrol-zentroan robot bat falta zela ohartu zen. Berehala joan zen alkatearengana.

—Alkate jauna!

—Bai?

—Pista bat aurkitu dut.

—Eta zein da pista hori?

—Robot bat falta da kontrol-zentroan.

—Banekien zer edo zer eraman zuela, baina robot guztiek daukate txip bat, haien arrastoa aurkitu ahal izateko.

Alkateak robotaren kokapena aurkitu zuen eta berehala joan ziren hura zegoen tokira.

—Oso ondo! Etxe gutxi falta dira, baina bakarrik 15 minutu ditugu lehertu baino lehen —esan nion nire robotari. Egia esan, ez nuen onartu nahi, baina robot hura oso dibertigarria zen.

Bat-batean, alkatea agertu zen eta ez zegoen oso kontentu.

—Eman oraintxe bertan robota edo, bestela, suntsiketa aurreratuko dut!

—Ez dut onartuko! Zergatik egiten duzu hau?

—Ez zaizu axola. Eta orain eman robota, bestela badakizu zer gertatuko den.

Orduan, beste ideia bat etorri zitzaidan burura: mugikorra hartu eta, ezkutuan, guztia grabatzen hasi nintzen, alkatea bere plan guztia azaltzen ari baitzen.

Ondoren, mugikorrarekin, zuzenean hasi nintzen egindako grabazioa igortzen, mundu guztiak ikusteko.

—Kaixo, biztanleak. Badakit robot asko erosi dituzuela, baina denak 10 minutu suntsituko dira eta, beraz, robot guztiak hartu eta etxetik urrun utzi.

Bukatu nuenean, alkateak mugikorra kendu zidan eskutik eta lurrera bota zuen. Baina, ordurako, mezua igorrita zegoen eta jendearen ahotsak entzun genituen

kalean: robotak etxetik ateratzen ari ziren.

Horrek oso pozik jarri ninduen, baina alkatea ez zegoen hain pozik. Pixkanaka, niregana gerturatzen ari zen, baina, bat-batean, nire gurasoak agertu ziren eta alkateari zaplazteko bat eman zioten.

—Inork ez dio nire alabari minik egingo —esan zuen amak, aitak poliziarri deitzen zion bitartean.

—Ondo zaude, maitea?

—Bai, ama! Ondo nago.

—Sentitzen dugu lehen kasu egin ez izana.

—Lasai! Gainera, opari bat dut zuentzat.

—Ze opari?

—Oraintxe ikusiko duzue, baina itxi begiak.

Lagunak, gogoratzen duzue kontrol-zentroan aurkitutako robota? Ba, orain gurekin biziko da. Ez da beste robotak bezalakoa; robot hau espeziala da. Ez galdu nire gurasoen aurpegia, je, je, je!

—Bale, begiak ireki ditzakezue —esan nien gurasoei.

—Ai, ama! Robot bat da! —esan zuten gurasoek beldurtuta.

—Bai, baina ona da benetan. Robot hau espeziala da.

—Benetan esaten duzu?

—Bai.

—Ba, orduan... Oso moñoñoa da.

—Goazen etxera, eguna oso luzea izan da-eta.

—Baina goiza da.

—A, egia! Ba, orduan, goazen ikustera nola eramaten duten alkatea kartzelara.

Poliziak etorri zirenean, alkatea atxilotu zuten.

—Hau ez da horrela geratuko! Itzuliko naiz! —esan zuen alkateak, poliziaren kotxean sartzen zen bitartean.

—Bueno... Orain bai... Goazen etxera.

—Baina aita... goiza dela! Goazen parkera edo buelta bat ematera!

—A, bai! Lan asko egin dut eta nire buruak ez daki ze ordutan bizi garen.

Denok barrezka hasi ginen.

—Ja, ja, ja, ja, ja, ja...

Bueno, ba, hau da niri gertatu zitzaidana. Espero dut asko gustatu izana, nahiz eta hain dibertigarria ez izan robot batzuk suntsitzeko momentuan eta tokian egotea. Baina, beste alde batetik, oso ondo pasatu dut; esperientzia bitxia izan da.

Agur eta laster arte!

Irati Sarasketa Ajvari

Amodioa

Nik daukat bihotza nahasita,
nahasita dut dena beti,
beti sinistu izan dut maitasunaz,
maitasunaz ikasi dut, ordea, bizitza ez dela perfektua,
perfektua hitza ez dela existitzen,
existitzen dena dela nire bihotza,
bihotza dago etengabe taupadaka,
taupadaka zabaltzen da gorputzean zehar odola,
odola, gure barruko kolore gorria,
gorria da nire bikoteari eman diodan arrosa.

Shua Aranzasti Iturbe



Ares Agüero Iglesias

Koloreak

Zer izango zen
mundua kolorerik gabe,
iluntasuna
munduaren jabe.

Kolore gorriaren
indarra,
suaren kolore
bakarra.

Kolore hori
alaia,
eguzki-loreen
garaia.

Kolore berde
garbia,
hortxe dabil
belarretan erbia.

Kolore urdin
lasaia,
itsasotik barrena
bidaia.

Kolore more
zoriontsua,
emakumeentzako
garrantzitsua.

Kolore arrosaren
maitasuna,
eta gure arteko
laguntasuna.

Zer izango zen
mundua kolorerik gabe,
iluntasuna
munduaren jabe.

Iraia Peña Fernandez



Mikel Barranco Albeniz

Amerikar bat Euskal Herrian

Bazen behin James izeneko mutil bat, Estatu Batuetan bizi zena. Jamesek 10 urte zituen, oso txikia zen, begi marroiak zituen eta ilegorria zen. Oso alaia zen, baina baita alper samarra ere.

James ez zen pozik bizi eskolan jazarri egiten zutelako: komunean atea itxita uzten zuten atera ezinik, arropa kentzen zioten eta Doraemonez mozorrotzera behartzen zuten, ura burutik behera botatzen zioten, hamaiketako zaborrontzira botatzen zioten... Lagun bakar bat besterik ez zuen, baina, eraso jasaten zuenean, hark ez zuen defendatzen.

Bere lagunak Spencer izena zuen. Oso altua zen, begi urdinak zituen eta ile marroia. Oso kirolari trebea eta ikasle ona zen, ikastolan emaitza bikainak lortzen zituen eta futbolean oso ona zen.

Erasotzaileak, berriz, Brody izena zuen. Oso altua, bizkorra eta indartsua zen, ile eta begi marroikoa eta boxeoko txapelduna zen haurren kategorian. Bere eskolako emaitzak ez ziren oso onak, baina ezta oso txarrak ere. Futbol amerikarrear ere oso ona zen eta asko gustatzen zitzaion bideo-jokoetan jolastea.

Etxera iristerakoan, gurasoek askotan galdetzen zioten Jamesi:

—James, zer moduz joan zaizu eguna eskolan?

—Gaizki pasatu dut. Berriro jazarri naute —izaten zen beti haren erantzuna.

Eskolako tutorea eta zuzendaritza-taldea jakinaren gainean zeuden, baina, arazoa konpondu beharrean, areagotzen ari zen. Gurasoak oso kezkatuak zeuden eta, azkenean, konponbidea bilatu ezinik, bizilekuz aldatzea erabaki zuten.

Entzuna zuten Euskal Herria oso leku ederra zela bizitzeko eta horixe aukeratu zuten.

Euskal Herrira iritsita, hasiera batean, harrিতuta geratu ziren ikastolak, etxeak eta baita parkeak ere hain txikiak zirela ikusita.

Jamesi ikaragarri kostatu zitzaion ikastolara joaten hastea. Beldurturik zegoen, pentsatzen zuelako han ere jazarri egingo zutela, baina gurasoek azaldu zioten lagun berriak egingo zituela eta animatu egin zuten.

Ikaskideek ongi etorri polita egin zioten. Jamesek bere burua aurkeztu zuen ingelesez. Ikasle batzuk ez zioten ondo ulertu, baina irakasleak euskarara itzuli zuen Jamesek bukatu eta gero.

Lehenengo egunak gogorak izan ziren hizkuntza-arazoak zirela medio, ezin zelako ondo komunikatu; baina, bestalde, ikaskideen laguntza eta adiskidetasuna nabari zuen.



Alex Barranco Albeniz

James pozik ikusten zuten etxean, inoiz baino zoriontsuago. Ikaskideek berarekin zein ondo portatzen ziren adierazten zien gurasoei.

Euskara ikasteko eta euskaraz bizitzeko gogo izugarria jarri zuen. Ikastolaz aparte, Udalak antolatutako euskara-errefortzua jasotzen hasi zen astean bitan. Horrela, egunak pasa ahala, hizkuntza gero eta gehiago menderatzen hasi zen.

Jamesek lagun pila egin zituen ikaskideen artean eta horietako bat bere lagunik onena bihurtu zen. Iker izena zuen, altueraz mutil txikia baina kirolari trebea.

Ikasturte bukaeran Ikerrek Jamesi Estatu Batuetako udaleku batzuetara joatea proposatu zion eta Jamesek, irribarre batez, baietz erantzun zion.

Uztailaren 4an joan ziren biak Estatu Batuetara.

Han, kanpamentuko lehen egunean, Brody izeneko mutil bat ezagutu zuen eta oso ezaguna egin zitzaion. Une batez pentsatu zuen bere lehengo erasotzailea izan zitekeela, baina ezinezkoa iruditzen zitzaion. Posible da hainbeste aldatzea? galde-tzen zion bere buruari. Brody oso mutil jatorra zen, dibertigarria, biktimen defen-datzailea eta, gainera, ez zitzaion futbola gustatzen ezta bideo-jokoak ere.

Egunak pasa ahala, txikitan jazartzen zuen mutila zenaren susmoa hazten joan zitzaion. Azkenean, konturatu zen hura zela.

Brodyrekin zuen adiskidetasuna handitzen joan zen eta oso lagunak egin ziren. Orduan, mundu guztia alda daitekeela konturatu zen.

Beraz, badakizu, norbait jazarri egin baduzu edo jazartzen ari bazara, jakin ezazu gaizki jokatzten ari zarela eta kontuan hartu: alda zaitezke!

Adur Garmendia Leunda

Kristalezko hiria

1872an, kristalik ez zegoenean, bidaiatzea asko gustatzen zitzaion gazte batek kristalezko hiria aurkitu zuen. Hiriaren eta bere abenturaren berri pergamino batean idatzi zuen. Pergaminoa inork ez zuen aurkitu 2007ra arte.

Oihane ikastolatik liburutegira bidean zihoan, Haizearekin hitz egiten. Oihanek 12 urte ditu. Ilea motza eta marroia du. Oso lehiakorra da. Haizeak, berriz, 13 urte ditu eta Martinen arreba bikia da. Nahiko altua da eta ile luzea du. Kanpotik oso harroputza ematen du, baina, ezagutzen baduzu, jatorra da.

—Aizu, zuri ondo iruditzen al zaizu bihar historiako azterketa egin behar izatea?
—esan zuen Haizeak haserre.

—Ez, baina zer egingo diogu —erantzun zion Oihanek.

Liburutegira iritsi zirenean, itxita aurkitu zuten eta Haizeak, mugikorrean, beste liburutegi bat bilatu zuen.

—Begira! Aldameneko kalean beste liburutegi txiki bat dago.

—Goazen azkar, ez dut-eta hori ere itxita aurkitu nahi.

Biak barrez hasi eta korrika abiatu ziren liburutegira. Kartelean jartzen zuenez, liburutegia 1872tik zegoen han. Barrutik oso txikia zen: bi pasillo besterik ez zituen. Inor ez zegoen barruan, ematen zuenez behintzat, baina bigarren korridoretik amona txiki eta zahar bat atera zen. Amonari historiako liburuak non zeuden galdetu zioten eta korridorearen bukaeran zeudela esan zien. Hara joan eta liburu bila hasi ziren.

—Honek itxura ona du —esan zuen Haizeak, liburu bat eskuetan zuela.

—Bai! —esan zuen Oihanek, beste liburu baten orriak begiratzuz— eta honek ere interesgarria ematen du.

—Barkatu, hemen ikasterik badugu? —galdetu zion amonari.

—Bai, bai! Hortxe dituzue mahaiak —erantzun zien.

Oihane eta Haizea mahaietan eseri eta liburuak irakurtzen hasi ziren. Bukatu zutenean, beste liburu baten bila joan ziren. Mahaira bueltatu zirenean, pergamino handi bat zegoen mahai gainean. Pentsatu zuten andreak gomendatutako testu bat izango zela. Ez zegoen ezer idatzita, baina, Oihanek pergaminoa eskutan hartu zuenean, testu bat agertu zen bertan bakar-bakarrik. Pergaminoa, itxuraz, zaharra zen eta zati bat falta zuela ematen zuen. Irakurtzen hasi ziren:

Kaixo! Testu hau irakurtzen baduzue, den-dena egiazkoa zela sinetsi behar duzue. 1872ko maiatzaren 13an bidaia bat egitera joan nintzen. Bidaia horretan gauza berriak ikasi eta aurkitu nituen. Baina nire aurkikuntzarik handiena...

Neskak harrিতuta geratu ziren. Irakurritakoa sinetsi eta gurasoei ezer ez kon-tatzea erabaki zuten. Orduan, pergaminoa hartu eta etxera joan ziren. Haizeak Oihaneren amari deitu zion, Oihanek berekin afaltzeko eskatuz eta baietz esan zion. Haizea eta Oihane Martinengana joan ziren. Martinek 13 urte zituen eta, esan bezala, Haizearen anaia bikia zen. Martin gelako harroputza zen eta Maddi izeneko neska-laguna zuen.

—Martin! Ez duzu sinetsiko zer aurkitu dugun —esan zuen Haizeak, ilusio handiz.

—Zer? —galdetu zuen Martinek.

Haizeak pergaminoa erakutsi eta ireki egin zuen. Martinek dena irakurri eta barrez lehertzen hasi zen. Haizea eta Oihaneri errespetu falta bat iruditu zitzaien eta pergaminoa eskuetatik kendu zioten.

—Aizu, zeri egiten diozu barre?

—Txorakeria hori sinetsi egin duzuela —esan zuen, barreari eutsi ezinik.

—Zuk ez baduzu sinetsi nahi, zure arazoa da.

Orduan, Maddi etorri zen afaltzera. Maddik 13 urte zituen eta oso neska jatorra zen. Martinen neska-laguna zen eta oso gutxitan haserretzen zen. Guregana hur-bildu eta galdetu zigun:

—Zertan ari zarete?

—Ba, liburutegi txiki batean aurkitu dugun pergamino zaharra Martini erakusten.

—A, ba, nik ere ikusi nahi dut. Posible bada, noski! —esan zuen jakin-minez

—Bai, bai, jakina! —esan zuten biek batera.

Maddiri pergaminoa erakutsi zioten eta Maddik begiratu arraro bat egin eta esan zien:

—Ni ere joango nintzake. Zuk, Martin, zer esan diezu?

Haizea kontatzen hasi zen anaiak zer esan zion, baina Martinek moztu egin zuen:

—Ni ere joango nintzela esan diet —esan zuen, Haizeari eta Oihaneri mingaina ateraz.

—Baina nondik atera duzue pergaminoa? —galdetu zuen Maddik.

—Iskina batean zegoen liburutegi zahar batetik. Zergatik? —galdetu zion Oihanek.

—Uste dudalako nire etxean pergaminoaren jarraipena dagoela —esan zuen harrituta.

Maddi etxera joan zen eta, handik pixka batera, berriro itzuli zen, pergamino zati bat eskutan zuela. Pergaminoa ireki eta bestearen ondoan jarri zuten.

Kristalezko Hiria izan zen. Bertara iristeko, bidaia latza egin behar izan nuen: zaldi magikoa bilatu, uztailaren 15a arte itxaron... Bidean marka batzuk ikusiko dituzue eta, markekin batera, hau bezalako beste pergamino bat. Pergaminoko informazioa hartu behar duzue kontuan, hiria bilatzeko edo, hobeto esanda, bizirik iristeko.

Pergaminoan marka bat zegoen. Irakurri eta gero, egiazkoa zela pentsatu zuten eta Kristalezko Hiriaren bila joango zirela erabaki zuten. Ez zekiten nora joan beharko zuten, baina, bat-batean, pergaminoak izpi arraro batzuk bota zituen eta testua aldatu egin zen. Testuan zaldi magikoak non zeuden azaltzen zuten:

Zaldi magikoak Omako basoan daude. Zuhaitz batzuetan markak ikusiko dituzue eta, marketako zuhaitzak soka batez lotzen badituzue, zaldi magikoak agertuko dira. A, eta uztailaren 15ean bakarrik agertzen dira zaldiak eta ostadarra.

Beraz, uztailaren 15a arte itxaron zuten. Uztailaren 14an gauzak prestatzen hasi ziren, hurrengo eguna luzea izango zelako: motxila, ura, janaria, sokak...

Hurrengo egunean, goiz jaiki eta Maddiren etxera joan ziren. Autobusa hartu eta Omako basora iritsi ziren. Basoko zuhaitzetan ez zegoen markarik, baina, motxilatik soka atera ondoren, zuhaitz batzuk argi arraro bat botatzen hasi ziren. Martin konturatu eta denei abisatzera joan zen:

—Aizue, horko zuhaitzek distira egiten dute.

—Egia! Goazen begiratzera! —esan zuen Oihanek.

Denak korrika, zuhaitz tartean abiatu ziren. Iritsi eta gero, markadun zuhaitz-tara hurbildu, sokarekin lotu eta portale arraro bat agertu zen eta zerutik pergamino bat erori zen. Pergaminok hauxe esaten zuen:

Oso ondo! Omako basora etorri eta zuhaitzak sokarekin lotu dituzue. Badakizue zaldiak gidatzen? Hurrengo pausuan portaletik pasa eta zaldi magikoak dauden zelaira iritsi behar duzue. Zaldiek aukeratuko zaituzte zuek, baina edozein zaldi hartzen baduzue edo zaldia eta zuek ostadarretik erortzen bazarete, gaizki bukatuko duzue. Beraz, kontu handiz ibili.

—Hau arrisku handiko zerbait da, hil edo bizikoa —esan zuen Martinek— eta, gainera, nik ez dakit zaldi bat gidatzen.

—Nik ere ez —esan zuten Oihanek eta Haizeak.

—Nik iaz zaldian ibiltzeko ikastaro bat egin nuen. Erakutsiko dizuet! —esan zuen Maddik.

Segidan, portalera sartu ziren. Barruan ur-jauzi bat eta belargune bat zegoen. Zaldi magikoak adarbakar moduko batzuk ziren. Aulkiak eta guzti zituzten. Maddiri zaldi bat korrika etorri zitzaion. Plaka bat zuen, izenarekin: Kenia zuen izena. Kenia marroi argia zen eta begien tartetan marka txuri bat zuen. Bigaren zaldia Oihaneri etorri zitzaion. Haren izana Arya zen. Arya zuri-zuria zen eta ez zuen ez markarik ez ezer. Hirugarren zaldia Haizeari etorri zitzaion eta Koral izena zuen. Koral beltz-beltza zen. Martinen zaldia ez zen etortzen. Halako batean, 20 minutu pasatuta, joan zitzaion: Koko izena zuen eta Haizearena bezala, beltza zen.

Denbora gehiago galdu gabe, ikasten hasi ziren. 30 bat minutu pasa eta gero, denak prest zeuden ostadarraren gainetik pasatzeko. Orduan, ordea, beste pergamino bat erori zen zerutik. Pergaminoan esaldi bakarra agertzen zen: *Ostadarra ezkerretara dago*. Zaldi gainera igo eta ezkerretara jo zuten. Azkenean, ostadarra zegoen tokira iritsi ziren. Bukaera ez zen ikusten. Zaldiak, batere itxaron gabe, ostadarra korrika pasatzen hasi ziren. Oso azkar pasa zuten eta, bukaerara iritsi zirenean, azken pergaminoa erori zen zerutik. Honela zioen:

Zorionak! Kristalezko Hirira iritsi zarete! Orain, hirian geratzeko, egun bat bakarrik duzue. Bihar atea itxiko da eta pena da, baina hurrengo urtean, uztailaren 15ean, berriro irekiko da eta berriro bueltatzeko aukera izango duzue. Kristalezko hiriak sekretuan jarraitu behar du, hemengo jendeak hori eskatuko dizue eta.


Laurek, poz-pez, irribarre egin zuten. Den-dena normala zen, baina eraikin guztiak pisu batekoak eta kristalezkoak ziren. Denak hiria esploratzera eta jendearekin hitz egitera joan ziren. Haizeak esan zuen oroigarri bat behar zutela abentura hura gogoratzeko eta denda batera joan eta bakoitzak nahi zuena erosi zuen: Martinek hiriaren maketa txiki bat erosi zuen, Oihane postal batekin konformatu zen, Haizeak bere arkatz bildumarako beste bat erosi zuen eta Maddi gauza guztiei argazkiak ateratzen hasi zen: zaldiei, hiriari, ostadarrari... Ordaintzera joan zirenean, dendariak hiriaren historia kontatu zien:

—Duela 750 urte Kristalezko Hiria sortu zen. Kristalezko harribitxi baliotsu bat topatu zuten hemengo meategian. Harribitxia babesteko egin zen hiria. Proba guztiak Harribitxiaren Jainkoak egin zituen eta Harribitxiaren Jainkoak ze per-tsona etorriko den ere aukeratzen du. Irtsi zaizkizuen pergamino guztiak guk idatzi ditugu. Inori ezin diozue kontatu hemen egon zaretela. Zin egin behar diguzue. Norbaiti esaten badiozue, harribitxia bilatzen ari diren lapurrak etorriko dira.

—Zin egiten dugu! —esan zuten denek batera.

Arratsalde osoa hirian pasatu ondoren, etxera joateko garaia iritsi zela ohartu ziren. Agur esan eta, portaletik barrena, berriro etxera joan ziren eta inori ez zioten bizitako abentura aipatu.

Iraia Peña Fernandez



Saioa Etxeberria Alberdi

Arrauna

Balian arrantzara
joanda barkotan,
zein lehenago iritsi
lehiatuz askotan,
kirol modura dago
lehia hau garai hontan,
batel, trainerilla ta
traineruko estropan. (bis)

Entrenatu ohi dute
uda ta neguan,
arraunlari bakoitza
nor bere lekuan,
orain telebista da
sartu inguruan,
ezaguna egin da
arrauna munduan. (bis)

Irailean horiz
jantzita Ernion,
gure traineruari
animatu nion,
azkenengo paladak
emanaz herion,
bandera izan genuen
berriro Orion. (bis)

Doinua: Konplize ditut eta

Inhar Gastiain

Koronabirusa

Makila sartu zidan
sudur zuloetan,
positibo eman nuen
antigenoetan,
oso triste egon nintzen
logela honetan
etxetik irten gabe
hamar egunetan. (bis)

Koronabirus, kaka,
egin duzu mina,
gaixo dauden pertsonak
kristoren ezina,
joan zaitez mundutik,
zomorro zikina,
hobeto izango zen
hemen ez bazina. (bis)

Doinua: Lizargate

Etxahun Sukia

Injustizia

Bere izena esan ezin zen herri batean, Esperantza izeneko neska gazte bat erditzen ari zen. Esperantza oso gaztea zenez, ez zuen bizirik irautea lortu. Hil baino lehen, hitz bakarra esan zuen: Perseo. Eta hori izango zen erditu zuen umearen izena.

Hortik aurrera, Perseo aitarekin hezi zen. Perseoren aita klase baxuko nekazari bat zen, herritarren %90 bezala, eta beti kontatzen zion zeinen errege maltzurra eta injustua zeukaten. Horregatik, Perseo txikitatik hasi zen aitarekin entrenatzen.

Egun batean, Perseok 7 urte zituela, erregearen soldaduak hilero bezala nekazarien uztaren %75 jasotzera etorri zirenean, Perseoren aita, injustua zela esanez, uko egin zion bere uzta emateari. Soldaduek, hori entzun eta gero, oso

haserre, Perseoren aita atxilotzera joan ziren, kartzelara eramateko. Perseoren aita, soldaduen kontra borrokan hasi zen eta soldadu bat lurrera botatzea lortu zuen. Soldaduen jeneralak, hori ikusita, korrika joan eta Perseoren aita akabatu zuen bere ezpatarekin tripa zulatuz. Perseo oso-oso haserre jarri zen eta, jenerala lurrera botatzeko asmoarekin, korrika abiatu zen harengana. Perseo umetxo bat zenez, jeneralak zaplazteko bat eman eta lurrera bota zuen. Ondoren, kartzelara sartu zuten.

Kartzelan igarotzen zuen egun bakoitza infernu bat zen Perseorentzat. Izan ere, oso jende gaiztoa zegoen, sekulako usain txarra, arratoi eta labezomorro mordoa...

Oso triste, aitak egun batean esan ziona gogoratu zuen: «Berdin du zein egoeratan egon, heroi batek beti egiten du aurrera».

Hori gogora ekarrita, Perseo gogor entrenatzen hasi zen egunero. Kartzela barruan, bere adin antzekoa zuten bi mutil eta neska bat ezagutu zituen, Leo, Jason eta Piper izenekoak, denak historia antzekoarekin, eta pentsamendu berarekin. Guztiek zuten helburu bera: erregealdi nazkagarri eta injustu harekin bukatzea.

Zazpi urte igaro zirenean, Perseo eta bere lagunak kartzelatik irten ziren.

Perseo eta bere lagunek, «Justuak» izeneko talde bat sortu zuten eta, hartan, erregearen kontrako gauzak egiten zituzten: soldaduek hileroko uzta jasotzea ekidin, esklabotzak murriztu...

Egun batean, Justuak hileroko uzta bat ekiditen ari zirenean, tranpa batean zeudela konturatu ziren: bat-batean, alde guztietatik soldaduak ateratzen hasi ziren eta, haien aurrean, Perseok horrenbeste gorrotatzen zuen jenerala. Jeneralak, Perseo ikusi zuenean, berehala ezagutu zuen, eta esan zion:

—Hara, hara! Ume mokoia beste zaplazteko baten bila etorri da —esan zuen jeneralak, oso harro.

—Oraingoan zu izango zara zaplaztekoa jasoko duena —erantzun zion Perseok.

—Gero ez zaitetz joan zure aitarengana negarrez. A, ez, ez daukazu-eta aitarik! Ja, ja, ja! —egin zuen jeneralak barrez.

Perseok, jeneralak bere aita hil zuen eguna gogoratu zuen eta, oso-oso haserre, ezpata hartu eta eraso egin zion jeneralari.

Leo, Jason eta Piper soldaduez arduratzen ziren bitartean, borroka oso bortitza eta parekatua egiten ari ziren Perseo eta jenerala.

Ordu bat geroago, soldadurik geratzen ez zenean, jenerala Perseo eta bere lagunez inguraturik zegoen.

—A, zer nolako kakatiak zareten —esan zuen jeneralak, oso nekaturik—. Lau baten kontra.

—Begira nork esaten duen hori, ehun soldaduko talde handia ekarri duenak —erantzun zion Perseok ia ahotsik gabe.

Jeneralak, bere azken arnasarekin, Perseori eraso egin eta zauri oso arriskutsu bat egin zion ezpataz. Perseo lurrera erori zen.

Leo eta Jason Perseori laguntzera joan ziren, eta Piper jeneralaren kargu egin zen.

Aste bat geroago, Perseo ohe batean esnatu zen eta Piper ikusi zuen, ondoan eserita. Hark gertatutako guztia azaldu zion, eta esan zion, baita ere, orain mendiko etxola zahar batean zeudela, eta Jason eta Leo egurra biltzera joan zirela.

—Orduan, zuk bakarrik garaitu zenuen jenerala? —galdetu zuen Perseok, oso harritura.

—Bai, baina, egia esanda, azkenetan zegoen ordurako —erantzun zion Piperrek.

—Hala ere, oso ausarta izan zara. Eskerrik asko! —esan zuen Perseok esker onez.

Bat-batean, Leo eta Jason sartu ziren atetik, eskuetan egur pila zutela.

—Egur honekin nahikoa izango dugu gaurko sua egiteko —esan zuen Jasonek.

—Bai, bi orduz egon gara jo eta ke egurra mozten —erantzun zuen Leok.

Gauean etxeko tximiniaren ondoan bildu ziren laurak, hurrengo kolpea planifikatzeko.

—Jenerala ez dagoenez, errege maltzuraren gazteluaren sarrera libre geratzen da —esan zuen Piperrek.

—Bai. Oso momentu ona izango da kolpe bat jotzeko —erantzun zion Leok.

—Gauza ez da hori, zer egin baizik —esan zuen Perseok pentsakor—. Norbaitek badu ideiarik?

Denbora luze batez pentsatzen egon eta gero, Jason hitz egiten hasi zen:

—Badakit zer egin. Sarrera libre dagoenez, ezkutuan sartu, soldaduek herritarrei lapurtu dieten guztia hartu eta herritarrei itzuliko diegu. Zer iruditzen? —galdetu zien lagunei.

—Oso ideia ona iruditzen zait; izan ere, herritarrak oso gustura jarriko dira beren gauzak berreskuratzean —erantzun zuen Leok, poz-pozik.

—Ni ere ados nago —gehitu zuen Piperrek.

Denak ados zeudela ematen zuenean, Perseo hitz egiten hasi zen:

—Idea ona da, baina zerbait falta zaio. Herritar guztiak informatuko ditugu eta gazteluaren izkinetan itxaroteko esango diegu. Horrela, gauzak herritarrei itzuli eta beren etxeetara joateko esango diegu. Horrela, erregearen guardiek ez gaituzte gauzak eskuan ditugula ikusiko.

Idea denei gustatu zitzaenez, goizean goiz herritar guztiak informatzera joateko prestatu ziren.

Goiz esnatu eta herritarrengana joan ziren. Herritarrak oso gustura eta pozez zorutzen geratu ziren ideiarekin. Gazteluaren izkinetan jarri ziren Justuak gazteluan sartzeko prestatzen ari zirela.

Gazteluko atea bota eta zitzu bizian sartu ziren denak. Bidean pare bat guardiarekin topo egin zuten, baina oso erraz menderatu zituzten.

Behin objektuen gelara iritsita, dena poltsetan sartzen hasi ziren. Baina, halako batean, barre lehor bat entzun zuten beren atzean. Biratu eta errege maltzurra zela ikusi zuten, atzean berrogeita hamar bat guardia zituela. Erregeak, borrokan hasi baino lehen, eskaintza bat egin zien:

—Gauza guztiak utzi eta niretzat lan egiten baduzue, bizirik utziko zaituztet.

—Zuk segi amesten, tirano zikina —erantzun zion Piperrek.

Eta borroka hasi zen.

Oso parekatua zegoen borroka, guardiak soldaduak baino hobexeagoak zirelako (eta, gainera, 50 ziren). Baina okerrena ez zen hori, okerrena zen erregea lasai-lasai zegoela, paretaren kontra. Denek zekiten erregea oso trebea zela ezpatarekin, jenerala baino trebeago, eta horrek asko larritu zituen.

Guardia guztiak akabatu zituztenerako, nekatuegiak zeuden erregearekin borrokatzeko. Orduan, Perseok azkar pentsatu eta esan zuen:

—Azkar! Goazen leihotik, lehenengo pisuan gaude eta!

—Ezta pentsatu ere, gaztetxo —esan zuen erregeak, eta leihoaren aurrean jarri zen. Baina, zorionez, erregea oso leloa izan zen eta atea libre utzi zuen. Orduan, Perseo eta bere lagunak handik korrika atera eta atea itxi zuten.

Gaztelutik korrika atera eta herritarrei beren gauza guztiak itzuli zizkieten. Herritarrak esker onez hartu zituzten eta esan zieten, laguntza behar zutenean, berengana jo zezaketela.

Gau hartan Justuak tximiniaren ondoan bildu ziren berriro ere, arduraturik. Izan ere, biharamunean, «kolpea» izeneko plana burutzea pentsatua zuten: gaztelura sartu eta erregetzarekin behin betiko bukatzea. Baina erregearen borroka-maila ikusi ondoren, zalantzetan zeuden. Halako batean, Jason hitz egiten hasi zen:

—Ezin dugu atzera egin gure planarekin; bestela, ez dugu inoiz egingo.

—Arrazoi duzu! Hau da gure momentua —esan zuten Piperrek eta Jasonek.

Perseok eta Leok elkarri begietara erreparatu eta biek batera esan zuten:

— Arrazoi! Aurrera egin behar dugu!

—Bai! Erregearen soldaduez eta guardiez libratu garenez, erregea bakarrik gelditzen da. Beraz, kolpea bihar eman behar dugu, soldadu gehiago lortzeko denborarik izan ez dezan —esan zuten Perseok eta Leok batera.

—Zer iruditzen ideia? —galdetu zuten segidan.

—Oso ideia ona iruditzen zait, baina nik beste gauza bat ere egingo dut. Zuek lasai, hori nire kontu.

Denek baiezkoa eman zuten eta, orduan, Jasonek esan zuen:

—Goazen, ba, lehenbailehen ohera, biharko eguna garrantzitsua izango baita!

Piper goizean goiz esnatu zen, bere plana burutzeko. Etxez etxe joan zen herri-tarrei plana kontatzen eta, ordu eta erdi geroago, beren mendiko etxera itzuli zen.

Itzuli zenerako, besteak esna zeuden eta, Piper ikustean, gauzak prestatzen hasi ziren.

Gaztelura iritsi zirenean, isiltasun susmagarri bat sumatu zuten, baina berdin sartu ziren. Barruan ez zuten inor ikusi, baina, badaezpada ere, gela guztietan begiratu zuten.

Gela guztietan begiratu eta gero, ez zuten ezer ere aurkitu eta, oso triste, behera jaitsi ziren. Atetik ateratzean, parez pare, erregea ikusi zuten, nola ez, borrokatzeko prest.

—Azkenean atera zara zure ezkutalekutik —esan zuen Perseok harro xamar.

—Ez zintuztedan utzi nahi lezio on bat jaso gabe —erantzun zion erregeak oraindik eta harroago.

Hori esan eta lau lagunak batera erregearengana korrika abiatu ziren. Harrigarria zen nolako maila zuen erregeak, lauren erasoari eusteko gai baitzen.

Ia ordu bateko borroka eta gero, lau lagunak nekaturik zeuden, baina erregea ere bai. Halako batean, erregeak garrasi bat egin eta ehunka soldadu atera ziren gazteluaren izkinetatik, eta erregeak barre handi batez esan zien Justuei:

—Galduta zaudete! Ezin izango duzue ehunka soldaduren kontra. Hau zuen bukaera da —esan zuen erregeak oso harro.

—Zuk uste? Ba, nik ez! —esan zuen Piperrek.

Piperrek garrasi egin zuen eta, bat-batean, milaka herritar iritsi ziren korrika eta garrasika, beren antortxak, aitzurrak eta sardeak altxatuz, eta, ziztu bizian, sol-

daduei aurre egiten hasi ziren.

—Zer? —egin zuen garrasi erregeak, harrituta—. Zuen erregea naiz! Kasu egin behar didazue, nekazari zikinak! —esan zuen erregeak, oso haserre. Eta, hori esanda, Justuen aurka borrokatzera abiatu zen.

Erregeak zauri arriskutsu bat egin zion Piperri eta lurrera bota zuen. Perseok, oso haserre, kolpe handi bat eman zion buruan erregeari ezpataren heldulekuarekin eta Piperrengana joan zen korrika. Jasonek eta Leok gauza bera egin zuten.

Erregea makurtuta zegoen bitartean, Perseok altxatzen lagundu zion Piperri. Piper altxatu zuenean, Perseok erregearen garrasi handi bat entzun zuen eta, kolpetik, sekulako mina sentitu zuen. Jendea inguruan bueltaka zebilkion. Behera begiratu zuenean, erregearen ezpatak tripa zeharkatzen ziola ikusi zuen. Odol asko galtzen ari zen.

Piper garrasika hasi zen eta, kolpetik, borrokaren zarata guztia geratu zen. Bai soldaduek eta bai herritarrek buelta eman zuten, zer gertatzen ari zen ikusteko, eta denak harrituta geratu ziren. Beren salbatzailea hilda zegoen. Errege maltzurak hil zuen.

—Ja, ja, ja, ja! —egin zuen barre erregeak—. Zer, orain zer egingo duzue zuen salbatzailetxo hau gabe?

Hori esan eta, kolpetik, lurrera erori zen bera ere. Izan ere, Perseok emandako kolpeak min handia egin baitzion barruan, eta heriotza eragin zion.

Geratzen ziren soldaduek ihes egin zuten, eta herritar guztiak Perseorengana hurbildu ziren.


Bai, hilda zegoen eta, zoritxarrez, ezin zuten ezer egin.

Egun hartan bertan egin zuten hileta eta, Justuen izenean, eta gehien bat Perseoren izenean, estatua handi bat eraiki zuten.

Urte bat geroago herria librea zen, eta gustura bizi ziren, nahi zuten lana egiten, eta nahi zuten moduan bizitzen.

Justuak herritik joan egin ziren, beste herri batzuei ere laguntzeko. Baina herri honek inoiz ez ditu ahaztuko bere heroien izenak, eta are gutxiago askatasuna lortzen hil zenarena: Perseo.

Martxel Uribarri



Kattalin Agote Vitoria

Fin

Kaixo! Naira eta Fin gara, familia bereko bi anai-arreba.

Ni, Naira, 12 urteko neskato bat naiz. 1,54 metro neurtzen dut eta 40 bat kg pisatuko ditut. Ile marroia eta kizkurra dut, sorbaldetaraino iristen zaidana. Begi marroiak ditut, ez handiegiak ezta txikiegiak ere, sudur nahiko txikia eta aho irribarretsua gehienetan, nahiz eta batzuetan ez den horrela izaten. Azal-kolore argikoa naiz. Nire neba, Fin, 8 urteko mutiko bat da. Ez dakit ez zenbat neurtzen duen ezta zenbat pisatzen duen ere. Ile marroia du, nirea bezalakoa, kizkur txikiekin eta nirea baino dezente motzagoa. Begi marroiak ditu, nireen tamainakoak, sudur ertaina eta zapala du eta aho irribarretsua, nirea bezalakoa; eta, barrez hasten denean, geratu ezin izaten duen horietakoa da. Azal-kolore marroia du.

Konturatuko zineten gure azal-koloreak ez direla berdinak. Fin ez da gure familian jaio. Beste familia bat ere badu, baina orain gurekin bizi da Hondarribian. Fin, jaiotzez, afrikarra da eta bere lehen urteak han eman zituen. 4 urte zituela etorri zen gurera. Gogoratzen dut egun batean amak eta aitak esan zidatela ea neba bat edukitzea gustatuko litzaidakeen eta, orduan, beren asmoa kontatu zidaten. Esan zidaten Afrikan bazeudela ume batzuk laguntza behar zutenak, beren familiak ez zeudelako oso egoera onean eta guk laguntza eman geniezaiekeela hona ekarriz, beren familiaren egoera hobetu arte. Ordutik aurrera Finen etorrera prestatzen hasi ginen.

Finen hitz egiten zuen hizkuntzarekin erlazionatzen hasi ginen, hitz batzuk ikasiz. Etxean berarentzako tokia egiten, bere logelarako materialak erosten... Eta nire gurasoak orri mordoa betetzen hasi ziren, toki pila batean sinatzen, beren datuak ematen...

Hilabete batzuen ondoren, amak, aitak eta nik bidaia luze bat egin genuen Afrikara, Finen bila. Hegazkinez ordu asko behar izan genituen, nahiz eta nik zati handi bat lo pasatu nuen. Oso orduri nengoen: lehenengo aldia zen hegazkinean bidaiatzen nuena eta, gainera, neba txiki bat edukiko nuen bidaia hari esker.

Afrikara iritsi ginenean, inor ez zen gure bila etorri eta bi orduz egon ginen itxaroten. Bi ordu eta gero, kamioi zahar bat etorri zen gure bila, Finengana joateko. Kamioiak ez zeuzkan eserlekuak eta, beraz, lurtean eseri behar izan genuen. Gainera, bidean trafiko handia zebilen eta lurra harriz josita zegoen. Beraz, luze jo zuen gure bidaiak kamioian. Niretzat harrigarriena izan zen ondora behi bat etorri zitzaidala eta sekulako sustoa eman zidala, nire ilea belarra zelakoan ahora sartu zuenean. Halako batean, eraikin zahar batera iritsi ginen eta han ume mordoa zegoen, eta baita heldu batzuk ere. Aitak esan zidan ume haiek guztiak han zeudela beren gurasoek ezin zituztelako zaindu. Nire gurasoak eta ni gela batera sartu ginen, eta han emakume nahiko zahar bat zegoen aulkian eserita. Guri ere beste

hiru aulkitan esertzeko esan zigun. Gurasoek emakume harekin hitz egin zuten, azkenengo orri batzuk bete zituzten eta, denok batera, nire anai txikia, Fin, ezagutzera joan ginen. Ez nuen pentsatzen horrelakoa izango zenik, baina ume polita iruditu zitzaidan. Fin lotsatu egin zen gu ikustean. Amak hango emakumearekin hitz egin zuen eta erabaki zuten hiru egun geratuko ginela; hartara, Fini ez zitzaion horren zaila izango handik alde egitea eta gurekin egotea. Hiru egun horietan Fin eta ni asko erlazionatu ginen. Askok gustatzen zitzaigun aitak gauero kontatzen zizkigun ipuinak entzutea. Hiru egun pasatuta, berriz ere Hondarribira itzuli behar genuen. Nik izeba-osabei, lehengusuei, lagunei, bizilagunei... denei nire anai txikia aurkezteko gogoia neukan. Etxera itzultzeko bidaiari ez genuen inongo arazorik izan, eta denboraz ongi ibili ginen.

Etxera itzuli ginenean, Fin oso harrিতuta geratu zen gure etxea ikustean eta bere logela berarentzako bakar-bakarrik izango zela esan genionean, bera ume mor-doarekin lo egiten ohitua zegoelako. Bere aurpegia ikusita, oso pozik zegoela nabaritzen zitzaion eta horrek gu ere poztu gintuen. Familia osoko bazkaria egin genuen aitona-amonekin, izeba-osabekin eta lehengusuekin, eta denek oso gustura hartu zuten Fin gure familian.

Nire ikastola berean hasi zen. Hasieran, ez zuen ikastolara joan nahi izaten, baina gero oso gustura joaten hasi zen. Bere adineko umeek bere hizkuntzarik ez zekitenez, euskaraz egiten zioten eta, etxean ere hala hitz egiten genionez, azkar ikasi zuen euskara. Lagun pila egin zituen eta pozarren egoten zen berekin ezkutatetan, harrapaketan, futbolekin edo bestelakoetan jolasten.

Finen ohitura batzuk zituen eta guk, aldiz, beste batzuk. Beraz, elkarren ohi-turetara moldatu behar izan genuen. Finen ohi-turetako bat goizero-goizero, esnatutakoan, kanpora atera eta familia guztiari zer eguraldi egiten zuen esatea zen. Gure etxean lo egin zuen lehenengo egunean susto ederra eman zigun, halako batean atletik irteten harrapatu genuelako. Pentsatzen genuen ihes egin behar zuela, baina gero berak dena azaldu zigun. Orditik, goizero-goizero, biok esnatutakoan, elkarrekin jaisten gara gure etxe atarira, eguraldiari begiratu eta gurasoei esateko zer eguraldi egiten duen.

Atzo, ordea, sekulako nahigabea hartu genuen. Goizean, 11:30ak aldera, postaria etorri zitzaigun gutun batekin. Hasieran, pentsatu genuen kuotaren bat edo horrelako zerbait izango zela, baina ez, askoz ere okerragoa zen. Hauxe jartzen zuen gutunean:

Juan-andre agurgarriak,

Jakinarazi nahi dizuegu Finen jatorrizko familiaren egoera hobetu dela eta bere gurasoek umearen zaintza berriro izatea eskatu dutela. Beraz, hilabete pare barru Fin bere jatorrizko familiarengana itzuliko da; zehazki, 2016/03/14an. Bitartean, joango gara nola izango den hitz egiten. Eskerrik asko zuen arretagatik.

Carlota

Horixe bera jartzen zuen eskutitzean. Gure familia hankaz gora jarri zen eta imajinatzen duzuen bezalako panorama eduki genuen.

Bi hilabete hauek ez dira izan bizi izan ditugun momenturik onenak; baina, azkenean, gertatutakoa onartu egin behar izan dugu. Fin gure familiara ekarri aurretik bagenekien, jatorrizko familiaren egoera hobetuz gero, berekin itzuli beharko zuela.


Berriz ere Afrikara bidaiatu dugu, baina orain sentimenduak zeharo bestelakoak dira. Isiltasuna eta tristura dira nagusi, baina Finek badu poz pixka bat bere barruan, familia berriz ikusteko gogoia ere badu eta.

Iritsi garenean, Fin korrika batean joan da gurasoak eta arreba txikia besarkatzera. Nire gurasoak eta Finen jatorrizko gurasoak elkarrekin hitz egitera joan dira. Ni Finekin eta arreba txikiarekin, Alikarekin, geratu naiz jolasean eta ezagutzen ez nituen jolas asko erakutsi dizkidate. Halako batean, jolasten ari ginen bitartean, gurasoak azaldu dira eta nireak oso irribarretsu ikusi ditut. Horrela ikusteak asko harritu nau. Gurasoak hitz egiten hasi dira eta esan digute planak aldatuko dituztela, gu ados baldin bagaude behintzat. Finek etorkizunerako aukera gehiago edukiko dituelako Euskal Herrian, gurekin geratzea egokia izan daitekeela pentsatu dute eta, bide batez, Alika ere gurekin etortzea erabakitzen ari dira.

Agian, imajinatuko duzue gertatutakoa. Hegazkina hartu dugu aitak, amak, nik... Finek eta Alikak. Tarteka, Afrikara itzuliko gara, noski.

Hau da nire familiaren istorioa! Munduko familiarik ederrena!

Kattalin Agote



Naroa Allo Campos

Katarroa

Ohean geldi-geldi,
eskola joan nahian,
burua dut galduta,
biraka, minean,
mantzanilla beroa,
lanpara ondoan,
ama laguntzeko prest,
baina ezinean.

Bat-batean tximistak
jo dit kopetean,
orroa bota dut nik,
lehoia moduan,
ezinegon ustel ho(r)i
oraindik kantuan,
burua galdu eta
falta dut zentzuan.

Eztarria lehorra,
begia itsua,
benetan sentitzen dut
galanta pisua,
birikak zapalduta,
burmuinan amua,
denari hartu diot
kriston mespretxua.

Leihotikan kanpora
dabil eguzkia,
kanta-kantari dabil
txoritxo txikia,
baina ni hemen sartuta,
buruan zapia,
katarro honek niri
sartzen dit ziria.

Usua Azkue



Naima Lopetegi Khalfan

Itsasoa

Ur azaleko olatuak,
bizitzako oztopoak.
Ur azpiko korronteak
atzeratzen dutenak.
Segi aurrera korronteen aurka
ez etsi eta iritsiko zara
itsas ondora,
zure ametsik preziatuenera.

Hodei Gastiain

Lilliana James & August II.aren urrezko erloju galdua


Egun euritsua zen Londresen, beste edozein egun bezala, eta Lilliana James bere bulegoan zegoen historia-lanak egiten, historialaria baitzen. Beste edozein egun bezalakoa izango zela zirudien, baina seguruenan entzun duzu esatera famatua: «Espero ezazu beti esperoezina». Lilliana eta John bere laguntzailea lanean ari ziren, harreragilea sartu zenean.

—Barkatu, andrea, zure ikerketa moztea, baina emakume bat dago zurekin hitz egin nahi duena. Petra Wagner izena duela dio eta Alemaniatik etorri dela. Garrantzitsua dela dirudi.

—Eskerrik asko! Esaiozu etortzeko! —erantzun zion Lillianak.

Lilliana, Wagner abizena entzundakoan eta Alemaniatik etorri zela entzutean, segituan konturatu zen nor zen Petra. Petraren aita oso arkeologo famatua izan zen eta Poloniako erregearen kutxa galduko erlikia asko aurkitu zituen. Zoritxarrez, orain dela hilabete gutxi hil zen.

Lilliana bere pentsamendutan galduta zegoen bitartean sartu zen Petra. Hitzik esan aurretik, Lillianak goitik beherako begirada bat bota zion. Begi urdin argiak zituen, orduak begiratzen egon zintezkeen horietakoak, eta ile marroi argi eta luzea zeukan, emakume ederra are ederragoa bihurtzen zuena. Lillianak begiratzeari uztera derrigortu zuen bere burua, egoera arraroa sortu aurretik.



Jinhan Chen

—Egun on, Wagner andrea! Zer dela eta zaude Londresen? —galdetu zion Lillianak.

—Ez dugu denborarik galtzeko eta, beraz, zuzenean dena kontatuko dizuet —esan zuen Petrak.

—Aurrera! Kontaiguzu —esan zion Johnek, jakin-minez.

—Aita arkeologoa zen eta erregearen kutxa galduko erlikien bila ibiltzen zen. Hil aurretik oso gertu geratu zen August II.aren urrezko erlojua aurkitzetik; beraz, hiltzeaz zegoenean, eskatu zidan ikerketarekin aurrera jarraitzeko eta hala egin nuen. Zoritxarrez, Giraldo izeneko altxor-lapurtzaile batek nire ikerketa guztia lapurtu dit —bota zuen Petrak.

—Zer dakizu urrezko erlojuari buruz? —galdetu zuen Lillianak.

—Badakit non dagoen. Eta, gainera, gauza bat dut Giraldok ez duena: giltza bat —erantzun zuen Petrak, harro.

—Zertarako da giltza? —galdetu zuen Johnek.

—Ez nago ziur, baina ia seguru nago bunkerreko giltza dela. Edozein moduz, ziur nago garrantzitsua dela, aitak hil aurretik egin zuen azkeneko gauza niri giltza hau ematea izan zelako —esan zuen, poltsikotik urrezko giltza txiki bat ateratzen zuen bitartean.

—Oso interesgarria da dena, benetan; baina ez diozu nire galderari erantzun. Zer dela eta zaude Londresen? —galdetu zuen berriz Lillianak.

—Zuen laguntza behar dudalako, urrezko erlojua Giraldok baino lehen aurkitzeko —erantzun zuen Petrak.


Hurrengo goizean, John, Petra eta Lilliana tren batean zeuden Alemania bidean. Trenak gela txikiak zituen eta hirurak gela batera sartu ziren, lasai hitz egiteko.

—Zurichera iristean, zuzenean Oihan Beltzera joan behar dugu, segur aski Giraldo dagoeneko han egongo da-eta. Jakingo duzuen bezala, Poloniako erregearen kutxa galdua naziak lapurtu zuten II. mundu-gerran eta aitaren ikerketei esker badakigu kutxa barruko 73 erlikiak hainbat tokitan ezkutatu zituztela. Oihan Beltzaren erdian lur azpiko bunker bat dago eta han dago erlojua —azaldu zuen Petrak.

—Kontuz ibili behar dugu, naziak horrelako erlikia garrantzitsuari gordelekuan tranpak jarriko zizkieten-eta —esan zuen Lillianak.

—Gainera, Giraldoren laguntzaileak gure bila ibiliko dira! —abisatu zuen Petrak.

Zortzi ordu beranduago, Zurichen ziren. Arratsaldeko bostak ziren eta iluntzen hasia zen.



Ander Uranga

Tren-geltokian guztiak erne zeuden, inguruan Giraldoren laguntzailerik ba ote zegoen begira. Segituan atera ziren geltokitik.

—Orain, auto bat hartu dezakegu Oihan Beltzaren sarrera arte —proposatu zuen Petrak eta halaxe egin zuten.

Ez zuten arazorik eduki auto bat aurkitzeko. Motxilak maletategian sartu eta hiru ordu eta erdiko bidaiarako prest eseri ziren. Inork ez zuen hitzik egin bidaian, baina Lillianak buruari bueltak ematen joan zen: «Zergatik sentitzen naiz arraro? Alemaniara etorri arte banekien zer egin, nola, noiz... baina orain burua beste nonbait dudala dirudi».

Hiru ordu luze pasa eta gero, John jabetu zen azken ordu laurdenean auto handi eta beltz bat segika zutela.

—Esango nuke auto hori segika dugula —xuxurlatu zuen, larrituta.

Guztiek atzera begiratu zuten eta gizon bat ikusi zuten autoa gidatzen, 50 urte ingurukoa eta oso forma onean zirudiena.

—Giraldo da —esan zuen Petrak, beldur puntu batekin.

Hotzikara handi bat sentitu zuen Lillianak gorputz osoan. Ordu erdi besterik ez zen falta Oihan Beltzera iristeko. «Orain zer egin behar dugu?» pentsatu zuen.

—Oinez joan gaitezke, baina zazpi orduko bidea da —proposatu zuen Petrak.

—Zer egin dezakegu, bestela, ba? Oinez joan beharko gara —onartu zuen Johnek.

—Hiru esatean autoa bide bazterrera eramango dut eta azkar atera! —agindu zuen Lillianak, berak gidatzen baizuen.

—Bat! Bi! Hiru!

Hiruak ziztu bizian atera ziren autotik eta korrika sartu ziren oihanera, baina gauza bera egin zuten Giraldo eta bost laguntzaileek ere. Lillianak konturatu zen Petra atzean geratzen ari zela.

—Azkarrago, Petra! —oihukatu zuen.

Lillianak ikus zezakeen Giraldo ez zegoela oso urrun Petrarengandik. Bat-batean, Petrak estropezu egin eta lurrera erori zen. Giraldok Petra lurretik altxa eta besoetan hartu zuen. Poltsikoan zuen pistola hartu eta burura apuntatu zion.

—Zuek! Bi aukera dituzue: korrika segi eta Petra hiltzen uztea, edo gurekin etortzea eta erlojua aurkitzen laguntzea! —oihukatu zuen Giraldok irribarre maltzur batekin.

Lillianak Johni begiratu zion, eta hark baiezkota egin zion buruarekin. Biek buelta eman eta oinez abiatu ziren Giraldorengana.



Hodei Gastiain Gurrutxaga

—Ederki! Partaide gehiago gure taldean! Badaezpada ere, hiru gizon hauek zuek zaintzen egongo dira. Ez dugu nahi inork ihes egitea, ezta? —esan zuen, Petrari pistola burutik kentzen zion bitartean.

Giraldo berriz ere autoak zeuden tokira abiatu zen. Bidean inork ez zuen ezer esan; guztiak burumakur joan ziren. Autoak zeuden tokira iristean, hiru lagunak furgoi handi baten maletategian sartu zituzten.

Furgoia martxan hasi zenean, Petra izan zen lehena hitz egiten.

—Barkatu! Ez bazintuztet Alemaniara ekarri edo erori izan ez banintz, ez zen ezer gertatuko —esan zuen erdi negarrez.

—Ez esan horrelakorik. Oraindik ez dago dena galdua —hasi zen Lilliana, Petra animatzeko asmoz—. Beharrezkoak izango ez bagina, guztiak hilda egongo ginateke, baina badakite kutxa non dagoen jakitea ez dela nahikoa erlojua lortzeko, eta guk dakigun edo daukagun zerbait behar dutela, zure giltza.

—Arrazoi duzu! —esan zuen Johnek.

—Baina erlojua lortutakoan, berdin-berdin hilda bukatuko dugu! —esan zuen Petrak negarrez.

—Ez diegu utziko irabazten! —esan zuen Lillianak, jakinda, nahiz eta oso gogorra izan, guztiz egia zela Petrak esan zuena.

Ordu Erdiko bidaia egin zuten furgonetaz eta gero beste ordu erdi ibiltzen joan ziren oihanean barrena. Bat-batean, gelditu egin ziren.

—Petra, zuk badakizu non gauden, ezta? —galdetu zuen Giraldok, lurretik harri bat mugitzen zuen bitartean.

Harria mugitu eta ate bat ageri zen: lur azpiko bunkerrera sartzeko atea!

—Mutilak, atera lehergaiak! —agindu zuen.

Bi laguntzaileek lehergailuak atera zituzten motxilatik eta Petra, John, Lilliana eta hiru langileak basoan barrena urrundu ziren. Bat-batean, sekulako eztanda entzun zen.

Berriz ere atea zegoen tokira iristean, Giraldo eta beste bi langileak lehertutako atetik sartzen ari ziren bunkerrera.

—Mutilak! Utzi gure gonbidatuak sartzen ere! Erlojua nola hartzen dudan ikustea nahi dut! —oihukatu zuen barrez Giraldok.

Hiru laguntzaileak eta hiru lagunak bunkerrera jaitsi ziren. Harrizko gela handi bat zegoen. Gela barruan lehergailuak, motxilak eta II. mundu-gerrako tresnak ikusten ziren, baina Giraldok eta hiru lagunak nahi zutena hurrengo gelan zegoen. Gerturatzen ari zirela, gero eta garbiago ikusten zuten: han zegoen August II.aren erlojua! Guztiak liluratuta geratu ziren.



Araitz Aizpitarte Iriondo

—Emile, zaindu gure hiru gonbidatuak! Beste guztiak, etorri nirekin!

Emile izeneko langileak pistola bat atera zuen eta paretaren aurka jartzeko esan zien; mugitzen baziren, tiro egingo zuela. Bitartean, Giraldo eta bere laguntzaileak erlojua zegoen gelan sartu ziren.

—Hemen dago! August II.aren urrezko erlojua! Honekin diru pila bat lortuko dut! —oihukatu zuen, pozez txoratzen—. Uste nuen zerbaitetarako erabilgarriak izango zirela hiru mukizu horiek, baina ez ditut ezertarako behar izan! Emile, hil itzazu!

—Barkatu! Nire giltzak ez du ezertarako balio! —esan zuen Petrak, errudun sentituz.

—Ixo! Zein joango da lehenengo? —galdetu zuen Giraldok.

—Zu! —esan zuen, Lillianari apuntatuz—. Azken hitzik?

Guztiak negarrez zeuden, guztiz beldurturik.

—Maite zaitut, Petra! —Lillianak bihotzez esan zituen ustez bere azken hitzak izango zirenak.

Baina Giraldo tiro egiteko prest zegoenean, bat-batean, erlojuaren gelako sarreran metalezko ate handi eta sendo bat erori zen. Emilek arreta galdu zuen eta Lilliana azkar altxa eta eskutik kendu zion pistola.

Bitartean, Giraldoren ahotsa entzun zuten:

—Laguntza! Tranpa bat zen! Erlojua faltsua da! Lagundu! Gas toxikoak daude!

Lilliana, John eta Petrak Emile zutabe batean lotu zuten.

—Goazen etxera... —esan zuen Petrak, triste, ez zutelako lortu urrezko erlojua.

—Ez! Ezin dugu orain joan! Honaino iritsi gara eta hemen dago! Badakit! —esan zuen Johnek, motibatuta—. Zure giltza! Ez dugu erabili, eta zerbaitetarako balio beharko du! Bilatu sarrailak gelan!

Hiru lagunak, esperantza berreskuratuta, sarraila baten bila hasi ziren zoroak bezala. Hala ere, Lilliana eta Petra beste gauza batzuetan pentsatzen ari ziren: «Zergatik esan behar nuen! Orain ez nago hilda eta berak badaki! Hau lotsa...» pentsatzen zuen Lillianak. Petrak pentsamenduak moztu zizkion bat-batean:

—Hemen! Hemen sarraila bat dago! —esan zuen, lurreko baldosa bat seinalatuz.

Giltza atera zuen poltsikotik eta baldosako sarraila ireki zuen. Baldosa handia ate bat bezala ireki zen.

—Eskailerak! Beste gela bat dago hemen azpian! —esan zuen Petrak, guztiz emozionatuta.



Itxaso Lopetegui

Hiru lagunak zitzu bizian jaitsi ziren eskaileretatik. Eskailera bukaeran gela txiki bat zegoen eta han August II.aren urrezko erlojua!

—Lortu dugu! —oihukatu zuen Lillianak pozez txoratzen.

—Benetan, eskerrik asko laguntzeagatik! —esan zuen Petrak, bera ere poz-
pozik—. Zuek gabe ez nuen ezer lortuko!

Erlojua hartu eta berriz ere kanpora atera ziren.

—Ez nuen uste berriz ere eguzkiaren argia ikusiko nuenik! —esan zuen Johnek,
eguzkiaren beroaz gozatuz—. 112ra deituko dut, Emile atxilotu dezaten!

John Oihan Beltzean sartu zen kobertura bila eta, horrela, Lilliana eta Petra bakarririk geratu ziren.

—E... zera... Barkatu lehen esan... —hasi zen Lilliana, baina Petrak ez zion
denborarik eman bukatzeko, eta musu bero bat eman zion.

—Nik ere maite zaitut!

Bi hilabete geroago, Emile atxilotuta zegoen eta Giraldo eta haren lau lagun-
tzaileak hilda aurkitu zituzten. Orain Petra Londresen bizi da eta, Lillianarekin eta
Johnekin batera, Poloniako kutxako beste erlikiak bilatzen ibiltzen dira.

Maddi Etxeberria

Zeruko txoriak

Poloniako herri txiki batean, Naina izeneko 9 urteko neskato judu bat bizi zen. Oso trebea zen, eta abenturazalea. Familiarekin batera bizi zen etxe txuri txiki batean. Bi anaia zituen, bera baino bi eta lau urte zaharragoak. Aita eta amarekin bizi ziren, oso pozik.

Egun batetik bestera, ordea, bizitzak 180 graduko bira egin zien juduei. Tropa alemanak judu guztiak akabatu nahi zituen, eta, herriz herri, herrialdeko judu guz-
tiak harrapatzen hasi ziren. Naina eta bere familia ere harrapatu zituzten eta
Auschwitz izeneko kontzentrazio-esparru batera eraman zituzten.

Naina ikaratuta zegoen, gizon haiek beldurra ematen baitzioten. Esparru har-
tako giroa ere ez zen polita; bihotzeraino heltzen ziren pertsonen oihuak, umeen
negarrak, tiroak, polizia eta zaindarien oihuak eta ematen zituzten kolpeen zaratak.
Inork ez zuen amesgaizto hartan egon nahi.

Heldu bezain azkar, arropa zuri-beltzak eman zizkieten eta ama eta bera anaia



Ane Puertas Rementeria

eta aitarengandik banatu zituzten. Egurrezko etxola txiki batzuetara eraman zituzten beste hainbat emakume eta umerekin batera. Ordutik, ez zuten aitaren eta anaien arrastorik izan. Egunero ohe estu eta txiki batean egiten zuen lo Nainak, amarekin eta beste bi emakumerekin. Arropek ez zuten batere usain ona, gosea pasatzen zuten eta ikaragarritzko hotza egiten zuen.

Zaindari baten oihuekin esnatu zen goizean. Bakoitzari ogi-zati lehor bana eman zioten eta lanera bidali zituzten. Gizonezkoek lan gogorragoak egiten zituzten, baina emakumezkoenak ere ez ziren errazak izaten. Nainari toki batetik bestera adreiluak mugitzea tokatu zitzaion, amari bezala. Egunero buelta pila bat ematen zituen alde batetik bestera adreiluak bizkarrean hartuta, ondoan zaindari bat zuela. Egunero ordubeteko atsedena izaten zuten, eta Naina zerura begira jartzen zen. Aitona etortzen zitzaion burura. Asko maite zuen eta bi urte ziren zerura joan zela. Etxean zegoenean, egunero hitz egiten zion, harekin zuen argazki kuttunena esku artean hartuta. Egunean gertatu zitzaiona kontatu eta bere bizipenak azaltzen zizkion.

Egun hartan zeruari begira jarri zen, aitonarekin hitz egiteko asmotan. Gora begiratzean, txori ugari ikusi zituen, eta haiek bezalakoak izan nahi zuen. Aske, zeruan, hegan. Egun hartatik aurrera, egunero-egunero, kontzentrazio-esparruko alde batera joaten zen, eta txori haiei desirak eskatzen zizkien: handik ateratzea, aita eta anaiak berreskuratzea, ondo usaindu eta hotzetik babesten zuen arropa edukitzea... Konfiantza zuen txori haiengan, eta eskatutakoak betearaziko zituztela sinesten zuen.

Bere erlijioari jarraituz, otoitz egiten zuen egunero isilpean. Egunetik egunera, indar gutxiago eta gose eta hotz gehiago zuten. Negua sartzen hasi zen, eta elurra ere egiten zuen gehienetan. Berek egunerokoan jarraitzen zuten; batzuek esperantza kontzentrazio-esparruko atetik sartu orduko galdu zuten, baina beste gutxi batzuek oraindik bazuten zoritxar hori bukatzeko itzaropena.

Egun batean, tximinia handi batetik ke beltza ateratzen hasi zen, eta Nainak hura zeren kea ote zen asmatu nahi zuen. Bere bizia arriskuan jarri zuen, baina, egun batean, korrika joan zen tximinia erraldoia zegoen eraikuntzara, eta espero ez zuen panorama aurkitu zuen: hildako jendearen gorpuak erretzen ari ziren, Naina zegoen eraikuntza hura krematorioa zen. Gauza pila bat pasatu zitzaizkion burutik, baina ezin zuen burutik kendu begi aurrean zeukana. Korrika itzuli zen bere postura, baina egun osoa buruari bueltaka egon zen. Jendea hildakoak garraiatzen zebilen eta beste batzuk gorpu haiek sutara botatzen. Naina kezkatuta eta beldurtuta zegoen, baina, hala ere, hainbeste gorpu nondik atera ziren jakin nahi zuen. Ez zen normala hainbeste pertsona hiltzea inor konturatu gabe.

Neskatxak ikertzen segitu zuen eta, egun batean, inoiz egon ez zen eta inoiz aipatu ez zioten eraikuntza erraldoi baten aurrean azaldu zen. Eraikuntza bitxia zen: karratua zen eta leiho bat zeukan goiko aldean. Naina etxola batean ezkutatu zen, jende artean. Ez zen inor azaltzen, baina, bat batean, garrasi- eta tiro-hotsak entzun zituen.



Klara Puertas Rementeria

Zaindariak zetozen, pertsona-multzo handi bat hartuta. Halako batean, denak zementuzko eraikuntza hartara sartu zituzten, eta atea indarrez itxi zuten. Garrasi pila bat entzuten ziren eta, bat-batean, zaindari batek gas-maskara jantzi eta, hautspoto bat hartuz, egurrezko eskailera batzuetatik gora igo zen, leihoaren parera. Leihoa ireki zuen, eta hautsa bota zuen barrura. Jendearen garrasiak entzuten ziren, pixkanaka-pixkanaka isiltzen joan zirenak. Nainak segituan ulertu zuen gertatu zena.


Halako batean, preso mordo bat etorri zen orgekin eta, banan-banan, gorpuak atera eta orgetan pilatzen joan ziren. Nainari mila zatitan txikitu zitzaion bihotza. Nola egin zezakeen hori pertsona batek? Bakoitzak bere orgatxoa hartu eta joan egin ziren. Zaindariak joan orduko, Naina ziztu bizian atera zen etxola hartatik, eta amarengana joan zen ikusi zuena kontatzera.

Ikusi zuen guztiak zentzua zeukan orain, baina ez zitzaion errealitatea gustatzen, eta hura nolana ere gelditu nahi izan zuen. Beraz, egunero bezala, kontzentrazio-esparruko alde batera joan zen, eta zeruan hegan zebiltzan txoriei, berriz ere, mirari bera eskatu zien: hura dena bukatzea. Nainak, hala ere, gehiago jakin nahi zuen, baina ez zuen bere bizitza hainbeste arriskatu nahi; izan ere, zementuzko eraikuntzara sartzea ere bururatu zitzaion, baina oso arriskutsua iruditu zitzaion.

Beste plan bat bururatu zitzaion: hildako pertsonak garraiatzen zituen jende tartean infiltratzea. Pentsatu eta halaxe egin zuen, hurrengo egunean: ama agurtu eta, ziztu bizian, bere taldekide berriengana joan zen. Ez zen lan batere erraza, baina eraikin haren barruan zer zegoen deskubritzeko modurik onena zen. Iritsi zen lan egiteko eguna, eta Naina urduri zegoen. Hartu zuen bere orgatxoa eta besteekin batera joan zen eraikuntzaraino. Iritsi zenean, zaindariak atea ireki eta barrura sartzeko oihukatu zien. Naina damutu egin zen han egoteaz: gelaren barruan gas toxikoak zeuden eta berek maskara eta babes gabe sartu behar izan zuten. Baina ez zegoen atzera bueltarik eta sartu egin zen. Hildako gorpu pila bat ikusi zituen, eta kirats oso fuertea zegoen, gasarena. Nainak, ahalik azkarren egin zituen lanak, eta alde egin zuen. Gorpuak erretzeko tokira eramane zituen eta handik bere lehengo etxolara itzuli zen; jada ikusi zuen eraikuntza haren barruko itxura.

Goiz batean, bat-batean, tiroak eta oihuak entzun zituen. Jende guztia kalean zegoen, oihuka, beldurrez, hotzez... Nainak ez zekien zer gertatu zen, beste pertsona gehientsuenak bezala. Tropa ingelesak sartu ziren kontzentrazio-esparruan, eta alemanek preso guztiak akabatu nahi zituzten ingelesek esparruaren kontrola hartu baino lehen. Ez zuten lortu denak akabatzea. Izan ere, trenak martxan jarri ziren eta pertsona pila batek alde egin zuen. Horietako batzuk Naina eta bere ama izan ziren. Naina ez zegoen oso pozik, aitaren eta anaien arrastorik ez zuelako. Agian, bizirik zeuden, baina, agian, lehenengo egunean hil zituzten. Baina Nainak ez zuen inoiz esperantza galdu, eta kontzentrazio-esparruaren gainean zeuden txorietan ezarri zuen konfiantza, zeruko txorietan.

Irati Olaizola



Laia Bergara Pamies

Geurea bizia

Goazen bada zu eta biok,
gaua zeruan,
mahai gainean eterrak
lokarazi gaixo baten antzera,
hedatzen den orduan.
Goazen kale erdi bakartietan ibiliz,
ostatu merkeetako gau atsedean gabeko
erretiro marmartsuetan,
eta zorua zerrautsez
eta ostra maskorrez betetako jatetxeetan.
Kaleak elkarren segidan datoz,
asmo zitalek argudio gogaikarri
baten gisara,
zeinak galdera ikaragarri batera zeramatzan.
Baina zer da hori?
Goazen eta egin dezagun geure bisita,
berandutu egin zaigu,
itsasoaren ganberetan,
alga berde eta nabarrez apainduriko itsasnesken ondoan,
giza ahotsek iratzarri eta itotzen garen arte.
Baina,
egunsentian distira egiten dute,
galduz doazen bere begiek.
Bihotza dugun lekuan
etxea hor dugulakoan,
lagun onak oso zailak aurkitzen
eta ezinezkoa delako ahazten.
Benetako maitasunak
garai zailenetan
duelako sorburua
eta,
minik sentitu gabe,
ezinezkoa delako plazera aurkitzea.

Edith Goenaga

Denbora

1

Egiten dugun hori neurtzeko
ez da unitate txarra,
guztiok dugu une askotan
erloju baten beharra.
Denbora inoiz ez da mantsoa
eta inoiz ez da azkarra,
denbora beti aurrera doa:
urteberri, urtezaharra...
ia bost mila milioi urtetan
gelditu ez den bakarra.

2

Denbora ez al da laino artean
ikusten ez den enara?
Denbora ez al da lurreko sagar
usteldu baten islada?
Denbora ez al da bi pertsonengan
iraun duen begirada?
Eguna gaua bilakatzea
baita ere, beharbada...
Denbora ez da ezer ez eta
aldi berean dena da.

3

Gehiengoentzat bizitzak ez du
iraupen batere motza,
oso luzaro bizitzeko prest
baitago gure bihotza,
baina bizitza batzuetan da
gaiztoa eta zorrotza,
nahiz badakigun noiz iristen den
haur txiki baten jaiotza,
soilik denborak jakin dezake
noiz datorren heriotza.

4

Eta denborak ere baditu
hainbat gezur eta egi,
beti ez zaigu berdin pasatzen
nahiz eta aurrera segi.
Denbora pasatzeko moduak
ditu pare bat aurpegi,
niri askotan gertatu izan zait,
baina ez dakit zueri:
sufritzean mantso pasatzen da,
gozatzean azkarregi.

5

Ahal dudanean gerturatzen naiz
aitona-amonen ondora,
kuadrillarekin afaldu eta
planak eginez, gustora,
mundu honetan joango nintzake
senideekin edonora,
merezi duten gauzak eginez,
segundotik segundora,
gure bizitza bakarra da eta
aprobetxatu denbora.

Doinua: Aita izena

Amaiur Sukia

Aggie Kristie eta ezinezko kasua

Abendua bukaerara iristen ari zen heinean, elurra gero eta bortitzago erortzen zen Eskoziako B&B txiki hartan. Inork ezin zuen ez atera ezta sartu ere, eta Aggie Kristie, B&Bko jabeen 17 urteko alaba, dena kontrolpean mantentzen saiatzen ari zen gurasoak kanpoan zeuden bitartean.

Sei bezero zeuden ostatuan. Hasteko, Europa osoan oso ezaguna zen trapezista ingelesa, Katy Cowen. *Cirque du Soleil*-eko aktuzio batean lau txiri-buelta segidan egin zituenetik, aparra bezala joan zen goraka haren ospea. Oso pozgarria zen Aggieren gurasoentzat hain pertsona famatua beren B&Bra etortzea. Aggie, berriz, ez zegoen batere pozik. Pertsona nazkagarria zen trapezista. Beti gehiago nahi

zuen, eta oso modu zakarrean esaten zuen dena. Trapezistarekin batera, noski, haren ama eta amaren laguntzaile atsegina, Amanda Barnez, hartu zuten ostatu. Benjamin izeneko idazle-filosofo bat ere bazegoen, inspirazio bila etorri zena Eskoziako mendi elurtuetara. Bukatzeko, bi emakume zahar zeuden. Aggieren ustez, bikiak, baina ez zuen galdetu. Egun guztia kartetan jolasten pasatzen zuten. Oso-oso gorrrak ziren eta, hori dela eta, oihuka hitz egiten zioten elkarri.

Horiek ziren bezero guztiak, baina Aggie ez zen hango langile bakarra. Leonardo Lombardi, edo Leo, hango sukaldari eta harreragilea zen, jenio handiko gizona. Aggieren lagunik onena ere han zen, Toby. Bi urte zituenetik beste ezer baino gehiago maite zuen-eta beti aldamenen zeukan txakurra.

Goiz osoa gelak txukuntzen pasa zuen Aggiek, baina, ordurako, tea zerbitzatzeko ordua zen. Oso te ona zerbitzatzeko zuten, Eskozian bertan egina. Jende askok gorai patzen zuen hango tea, eta Aggieren gurasoak harro zeuden hortaz. Tea banatzen hasi zen Aggie eta, bitartean, idazlearen ideia filosofikoak entzun zituen, bi emakumeekin oihuka hitz egin zuen, eta Amandak esan zion Katyk bere te berezia hartu behar zuela. Betikoa. Dena beti bezala zihoan, Katyk dena nahastu arte.

—Buaj! Afari hau nazkagarria dago!

Berez, afaria beranduago zerbitzatzeko zuten, baina Katyk Leori erregutu edo, hobeto esanda, agindu egin zion berehala nahi zuela. Leok, marmar artean, bere lasagna italiar onena eman zion.

—Mesedez, Katy! Ez esan hori! Barkamena eskatu sukaldariari oraintxe bertan!
—esan zion amak, haserre.

—Zergatik? Txarra badago, txarra dago —erantzun zuen, harro.

—Katy Elizabeth Cowen! Eskatu barkamena oraintxe bertan! —esan zuen amak, are haserretuago.

—Lasaitu gaitezen guztiok, mesedez... —esan zuen Amandak, ulerkor.

—Nire janaria ez bazaizu gustatzen, nahi baduzu, elurretara atera eta ea hor zer janari bilatzen duzun —esan zuen Leok, gordin.

—Niri inork ez dit esaten zer egin —erantzun zion Katyk, aulkitik altxatuz.

—Ba, asko sentitzen dut zu Barbyren mundu batean bizi izatea eta ez egotea ohituta protagonista zu ez izatera, baina, badakizu zer? Ez dit axola! Jan lasagna ala ez duzu ezer jateko —bota zuen Leok, oihuka.

—Baina nola ausartzen zara? Zuk ba al dakizu nor naizen? Oraintxe bertan Instagramen B&B nazkagarri honi buruz idazten badut, milioika pertsonak jakingo dute zer txarra den!

—Aurrera, mesedez! Ez dut uste orain dela bi urte ospetsua izan zen trapezista batek esaten duena asko inportako zaienik.

Katy asko harritu eta haserretu zen horrekin, eta mugikorra atera zuen.

—Listo. Idatzita.

Hori esanda, bere gelara joan zen haserre, ama eta Amanda atzean zituela. Ama haserre, eta Amanda kezkatuta. Aggieri, egia esan, grazia egiten zion Leo hain haserre ikusteak eta, liskarra eta gero, barre batzuk egin zituzten Katyri buruz gaizki esaka. Aggieri asko gustatzen zitzaion han lan egitea eta, Leo eta Katyren artekoa kenduta, nahiko B&B lasaia zen hura. Horixe pentsatzen joan zen ohera gau hartan Aggie. Ez zekien zein oker zegoen.

Hurrengo goizean, goiz esnatu zen Aggie, beti bezala, gosaria banatzeko eta gelak txukuntzeko. Katyren gelako atea jo zuen. Ez zen erantzunik egon. Berriz jo zuen. Ezer ez. Azkenean, sartu egin zen eta inor ez zegoela ikusi zuen. Arraro samarra. Ohea egiten hasi zen, eta gelan sekulako kiratsa zegoela konturatu zen. Ingurura begiratu zuen, baina ez zegoen ezer. Bobby aztoratu egin zen usainarekin, eta hori ez zen ohikoa harengan. Ohea egin zuen, eta komunera joan zen, eskuak garbitzera. Atea irekitzean, zerbait zapaldu zuen. Behera begiratzean, hantxe ikusi zuen Katy, lurrean zerraldo.

Goiz hura nahiko kaotikoa izan zen. Denak jangelan zeuden. Katyren ama negarrez, Amanda hura kontsolatzen, Benjamin pentsakor, eta bi emakumeak kartetan jolasten. Aggie Leorekin zegoen.

—Arraroa, ezta? —galdetu zuen Aggiek.

—Zer?

—Pentsatzea oraindik B&B honetan dagoela hiltzailea.

—Baina zer diozu?

—Tira, Leo. Elur ekaitz batean gaude. Ezin du inork ez atera ez sartu.

—Benetan uste duzu gutako bat dela?

—Bai. Eta baditut nire susmagarriak.

Aurreko gauean Katyren amak hitz egin zion moduaz gogoratu zuen Aggie.

—Ni ez naiz izan —esan zuen Leok—. Badakit atzo oso gaizki hitz egin niola eta ez naiz damutzen, baina ni ez naiz izan.

—Badakit. Atzo gauean entzun zenuen zerbait?

—Bai. Katyren ama niregana etorri zen, alaba txit gorenarentzat esne epel pixka bat eskatzera.

—Beste zerbait?

—Ez.

Aggie pentsakor geratu zen. Egun guztian zehar, lanak egiten ari zen bitartean, Katyren hilketaz pentsatzen jarraitzen zuen. Hain oharkabetuta zegoen, plater zikinak eramaten ari zenean, pare batek irrist egin ziotela eskuetatik. Amandak, bizkor, ez balitu hartu, puskatu egingo ziren. Aggie harrituta geratu zen: Amandak sekulako erreflexuak zituen. Platerak oso arin jaso zituen.

Lanak bukatu eta gero, bere gelara joan zen, eta Tobyrekin bere pentsamendurak partekatu zituen. Txikitatik zuen ohitura hori, eta beretzat lasaigarria zen. Hitz egiten ari zela, Katyren ama ate-zirrikitutik sartu zen. Oso itxura txarra zuen. Sekulako begi zuloak. Begiak gorri-gorri, negarraren ondorioz.

—Zein uste duzu izan dela?

—Barkatu?

—Zure txakurrarekin hitz egiten entzun dizut. Zein uste duzu izan dela?

Aggie erantzun ezinik geratu zen, ahoa irekita. Egia esan, ez zuen ideiarik ere.

—Atzo gauean Leorengana joan zinen esne bila? —galdetu zuen, gaia aldatu nahian eta, bide batez, informazioa lortzeko asmoz.

—Bai. Katyk gauero hainbat gauza egiten zituen: mediatu, bainu bat hartu... eta hamabiak aldera te lasaigarri bat hartzen zuen, ohera joateko. Horretarako zen esnea.

Aggie, berriz ere, isilik geratu zen.

—Asko sentitzen dut. Zaila izan behar du zure alaba galtzea —esan zuen Aggiek, emakumearen itxura atsekabetua ikusita.

—Nik... ez dakit. Katy... badakit oso pertsona zakarra eta harroa zela, eta zituen gauza asko ez zituela merezi, baina nire alaba zen. Hemeretzi urte, egunero-egunero, nire alabarentzat onena lortu nahian. Azkenaldian, haren jarrera aldatzen saiatzen ari nintzen, zintzoagoa bihurtu nahian. Eta pentsatzea nire alabari esandako azkeneko hitzak oihuka esan nizkiola... bihotza apurtzen zait.

Hori esan eta gero, negarrez hasi zen, eta Aggiek ez zuen jakin zer esan. Besarkatu egin zuen eta, une horretan, inoiz baino gehiago, ama errugabea zela pentsatu zuen. Haren hitzak bene-benetakoak ziruditen.

Berriz ere Tobyrekin hitz egiten jarraitu zuen Aggiek, baina, orduan, pasatu ziren gauza guztiak errepasatzen. Eta, bat-batean, Tobyri hizketan ari zitzaioala, dena lotu zuen. Bazekien zein zen hiltzailea.

Ordubete beranduago, Aggiek bezero guztiei jangelara etortzeko esan zien.

Denak urduri zeuden. Egia esan, zein ez zen urduri egongo hiltzaile bat beren artean egonik?

—Kaixo denoi. Badakizuenez, atzo gauean Katy Cowen hil zen. Bueno, hobeto esanda, hil egin zuten. Elur ekaitz betean gaude, hau da, inork ezin du ez atera ez sartu; beraz, hiltzailea gure artean dago.

Jendea baxu hitz egiten hasi zen, urduri.

—Atzo arratsaldean, denok ikusi genuen bezala, Leok eta Katyk liskarra izan zuten. Gero, Katy gelara joan zen, eta gau hartan bertan hil zen. Baina ez zegoen odolik. Beraz, nola hil zuten?

—HITZ EGIN ALTUAGO, MESEDEEEZ! —esan zuen emakume gorretako batek.

—Atzo gauean, Katyren ama esne pixka bat eskatzera joan zen Leorengana, alabak te lasaigarria edan nahi zuen-eta. Hemen Eskoziako terik onena ematen dugu, baina Katyk atzo bere te berezia hartu zuen. Gaur goizean bere gela txukuntzera sartu naizenean, sekulako kiratsa zegoen. Toby, nire txakurra, zaunkaka hasi da, aztoratuta. Eta gauza bakar batek jartzen du horrela Toby: pozoiak.

Denak harrিতuta zeuden; baita Leo ere.

—Beraz, Katy bere tean zegoen pozoiarekin hil zen. Baina nork jarri zion pozoia? Ba, bere laguntzaile goxo eta perfektuak: Amanda Barnesek.

Denak isilik geratu ziren, eta Amanda, berriz, harrituaren plantak egiten hasi zen.

—Nik? Nik Katy asko maite nuen! Zergatik hilko nuen nik?

—Galdera ona. Nik ere galdera hori egin diot nire buruari. Zergatik? Bueno, ez da oso zaila izan deskubritzea. Ezta... Louise Thompson? Hori da-eta zure benetakoa izena, ezta? —esan zion Aggiek Amandari, begirada zorrotzez.

Denek zekiten zein zen Louise Thompson. *Cirque du Soleil*-en probetan, bi trapezista bakarrik geratu ziren: Katy eta Louise. Katyk irabazi zuen lehia, noski, eta Louisek galdu.

—Ez zenuen *Cirque du Soleil*-en sartzea lortu, ezta? Eta, orduz geroztik, operazio pilo bat egin dituzu, zure itxura aldatzeko, eta izena ere aldatu duzu. Baina interneten bilaketa apur bat eginda, dena jakiten da, laztana. Eta, noski, nire aurrean platerak modu perfektu batean jasotzen badituzu, zer nahi duzu nik pentsatzea?

Hura entzundakoan, Amandak beti zeraman maskara zintzoa erori egin zen, eta benetakoa agertu zen. Irribarre maltzur bat zuen aurpegian.

—Nik irabazi behar nuen! Baina ez, Katyk irabazi zuen eta, gainera, ez zuen apreziatzen! Neska zakar, maltzur, harro nazkagarria!

Katyren ama negarrez hasi zen, eta Aggiek jarraitu zuen:

—Lasai, Amanda! Kontatu hori guztia poliziari. Bidean daude.

Aggieri entzuten egon izan balira bezala, polizia sartu zen orduantxe, eta Amandaren aurpegia guztiz aldatu zen. Korrika hasi zen, baina ez zen oso zaila izan hura harrapatzea. Poliziak eskerrak eman zizkion Aggieri, eta baita Katyren amak ere, gutxienez mila aldiz. Hortik aurrera, egunak oso lasaiak izan ziren. Elurak erortzen jarraitzen zuen, baina arinago. Txokolate beroa edanez, kartetan jolasten ziren. Elur-panpinak egiten zituzten, eta Leok bere lasagna famatua egiten irakatsi zien. B&Ba berriz lasai zegoen, eta abendua pasatzeko toki perfektua zen. Aggiek inoiz baino alaiago zegoela pentsatu zuen, leiho ondoan zegoen bitartean, elurra erortzen ikusten, eta Agatha Christieren liburu on bat irakurtzen.

Uxue Etxeberria

Miren

Kaixo. Ni Miren Ibaizabal naiz. Nire herrian bada beste Miren Ibaizabal bat, baina ni 9 urteko Miren naiz, ez 10ekoa. Nire aitona Mauriziorekin bizi naiz. Aitonari Maurixio deitzea gustatzen zaio, esaten du konfiantza transmititzen duela izenak horrela esaten bada, baina niri ez zait hala iruditzen. Mendi eder eta lasai baten tontorrean dagoen etxola polit batean bizi gara. Nik beti esaten dut gaztelu bat dela, baina aitonak barre egiten dit; esaten du, gaztelu bat baino gehiago, gazteluko lorategian dagoen lorezainaren etxea dela, eta teman ibiltzen gara horrekin. Baina, ezer baino gehiago, berarekin ederki konpontzen naiz; nahiko isila eta marmartia da, baina berdin-berdin maite dut. Haserretu egiten da agure egoskorra deitzen diodanean, eta nik barre egiten dut sabelak mina eman eta malko alaiak nire begietatik irteten zaizkidan arte.

Aitona Maurixio, goizeko bostetan joaten da lanera egunero. Ez dakit zertan edo non egiten duen lan, ez zaio-eta gustatzen horri buruz hitz egitea; ez dakit zergatik. Herrira gutxitan jaisten gara, baina, joaten garenean, oso ondo pasatzen dut. Gainera, herrira joan behar garenean, aitonak bi motots egiten dizkit, bi laxo arrosarekin, nahiz eta ez zaidan arrosa kolorea asko gustatzen. Aitona ere oso apain jartzen da; trajea eta gorbata dotorea janzten ditu. Uste dut Maritxu ikusteko jartzen dela horren dotore; seguru nago maiteminduta dagoela. Nik ez dut gustuko inor, herriko mutil guztiak tontolapiko bihotz gabeak dira-eta. Haiekin jolastera joaten naizen bakoitzean, zangozartza jartzen didate, baina Iratik defendatzen nau. Irati nire laguna da. Ni baino zaharragoa da eta, horregatik, nire gelako mutilek ospa egiten dute hura azaldu orduko, oso handia delako duen adinerako.

Gaur goizean, eguneroko moduan, aitona lanera joan da. Badakit, joan aurretik beti muxu ematen didalako kopetan; baina, gaurkoan, zerbait arraroa zegoen. Aitona nire ondoan eseri da eta malko bat erori zaio tristuraz beteriko aurpegitik. Nik lo itxurak egin ditut, baina zaila egin zait aitona horren minduta ikustea. Joaterakoan, hauxe esan dit:

—Asko sentitzen dut, pitxin! Badakit emakume galanta izango zarela, baina orain inoiz baino gogorragoa eta indartsuagoa izan beharko duzu, garai zailak datoz-eta. Agur, polit hori! —eta joan egin da.

Aitonak maleta bat darama, baina arraroa da, beti esku hutsik irteten delako. Autoaren soinua entzun dut, pixkanaka urrutiratzen. Joan orduko, zakarki kendu dut manta tirakada batez eta sukaldera joan naiz. Mahai gainean gutun bat aurkitu dut, niri zuzendua:

Kaixo, Miren! Gorrotatu egingo nauzu egin dizudanagatik, baina ezin dut ezer ere egin hori saihesteko. Ezin dizkizut xehetasun asko kontatu. Arazo batzuk izan ditut lanekoekin eta denboraldi batez kanpoan izango naiz, pare bat urte edo. Baina lasai, moldatuko zara;

nik badakit egingo duzula. Hasieran normala da kostatzea eta zaila egitea, baina jendea izango duzu inguruan. Ezagutzen ez duzun izeko bat etorriko da, Maria izenekoa, izeko Maria. Berarekin geratuko zara urte hauetan, eta badakizu Irati ere baduzula zure alboan. Saiatu egunerokoari normal aurre egiten. Oso damututa nago egindakoa. Muxu handi bat zuretzat. Agur!

Aitona Maurixio

Malkotan nago, min dut bihotzean. Aitona gaiztoa da. Nola liteke ni bakarrik uztea emakume ezezagun batekin? Ez dut ikusiko denbora askoan, baina ez dut ikusi nahi ere. Haserre nago berarekin. Ez da justua niretzat, baina, aitonak esaten duen bezala, mundua ez da justua.

Gutuna irakurri eta handik gutxira, motor baten zarata entzun dut etxe kanpoan. Atera naiz ikustera eta Vespa Primavera bat da, nire aitonaren motorrik gustukoena. Beti esaten zuen horrela konkistatu zuela gure amona, batera eta bestera eramaten baitzuen txatarra berde horrekin. Baina nik txatarra aipatzen nuenean, errieta egiten zidan. Baina egia da, garbigunetik lapurtutako traste bat ematen du; nahiz eta aitonak esan berri-berria zegoela, ez da egia. Ibilgailuaren gainean, emakume bat dago, 50 bat urtekoa. Kaskoa du jarrita eta bere buruaz seguru dauden horietakoa ematen du. Mendebaldeko pelikula bateko protagonistaren botak ditu, larru marroikoak, dekorazio argiagoezin. Itzelak! Bakero estuak ditu, kamiseta zuria eta koadrozko alkandora bat gerrian lotuta. Kaskoa kendu duenean, ikusi dut ile motza duela, zuri modernoz tindatuta. Burua astindu du eta ematen zuen ileak distira egiten ziola. Emakume oso ederra da. Hitz egiten hasi zait:

—Bueno, zu izango zara gure Miren, ezta? —esan dit, pixka bat makurtuz eskua luzatzeko.

—Eee... Bai! —erantzun diot eskua emanez segurtasun gutxirekin.

—Bueno, ba, ni izeko Maria naiz. Suposatzen dut zaharrak kontatuko zizula zerbait neuri buruz. Niri esandakoa baino politagoa zara! —esan dit irribarre zabal batez.

—Eee... Bai! —errepikatu dut, bere hitzek harrituta.

—Bueno, ba, Mirentxo, erakutsiko al didazu, mesedez, etxola hau? —esan dit.

—Bai, noski —esan diot, begirada harritu bat botaz.

Etxea erakutsi diot. Ez zaio asko gustatu. Esan du itxura *zaharkitua* duela. Baina niri gustatzen zait; gainera, amonak diseinatu zuen. Ondoren, bazkaltzeko ordua iritsi denean, herrira jaitsi gara hanburgesa bikoitz bat jatera. Mundiala izan da! Oso dibertigarria da izeba. Motoan ibiltzeko gonbita ere egin dit, baina, beteta nagoenez, ez dut gogorik izan ibiltzeko, bestela sabelak eztanda egingo didalako. Izeba oso independentea da. Esaten du gizonak kokolo hutsak direla eta ez duela

merezi berengatik negar egiterik. Erdarazko esamoldeak dioen bezala: *Mejor sola que mal acompañada*. Baina nik ez dut oso ondo ulertu zer esan nahi izan duen horrekin, nik ez dakit-eta asko mutilei buruz. Aitona eta biok herrira jaitsi ginen egun zoragarri batean, mutil guapo bat ikusi nuen, baina ezer gehiagorik ez. Oraintxe bertan ez dut interesik mutilengan. Nahikoa dut nire lagunekin. Handia izandakoan, izeko bezain *guai*a izan nahi dut. Demasa da.

Orain, jostailu-dendara noa izekorekin. Esan dit, bere ongietorria ospatzeko, jostailu bat erosiko didala. Ez dakit nolakoa.

—Bueno, ba, Mirentxo...Nolako jostailua nahi duzu? Nahiz eta herri ñimiñoa izan, denda hau izugarria da. Denetik dago. Nire garaian horrelako bat izan bagenu herrian, puff... Zure aitonari poltsikoak hustuko nizkion, eta zure aitari, zer esanik ez! Ja, ja, ja! Ederrak garaiak haiek! Herriko ume guztiak egunero-egunero zalditegitik lapurtutako soka zahar batekin ibiltzen ginen —esan du aurpegian irribarrea marrazten zaion bitartean.

Nik irribarrea itzuli diot.

—Ba, badakizu zer, izeko? —galdetu diot.

—Esan —erantzun dit adeitasunez.

—Nik nahiagoko nuke garai haietan egon. Denak pozik, batera. Orain, berriz, herriko umeak bata besteari traba egiten ibiltzen dira eta, gainera, herriko zaharren etxeetako leihoak puskatzen dituzte nahita baloiarekin, molestatzeko. Muturreko bana jotzeko gogoia ematen didate guztiek. Baina ezin dut, ni denetatik txikiena naiz eta. Nik joz gero, berek bueltan emango zidaten belarrondoko handiagooa, eta horrek ez dit grazia handirik egiten —esan dut. Hau lasaitua hartu dudana hori esaterakoan. Arindua hartu dut.

—Badakit zer egin! —esan dit barre maltzur baina, aldi berean, atsegin batekin.

—Zer? —galdetu diot, jakin-minez.

—Zuk esan zeinek egiten dizun burla eta ni berengana joango naiz. Eta esango diet, kamisetatik helduz: *Argi ibili, mukitsu halakoa! Ni Mirenen izeko naiz eta, horrela jarraitzen baduzue, ikusiko duzue! Eta, orain, alde hemendik, artaburu kuadrilla!* —esan dit, imintzioak eginez.

—Ja, ja, ja, ja, ja! —biok barrez lehertzen hasi gara, lurrera erori arte.

Orain ohean sartu naiz. *Ondo lo egin!* esan dit izekok eta muxu bat eman dit kopetan. Gustura nago: izeko mundiala da eta nire bizitzako egunik onena izan da, itzela! Modernoa izan arren, oso atsegina eta goxoa da izeko. Nahiz eta gaur ezagutu dudana, asko maite dut dagoeneko. Begiak ixten zaizkit loguraz.

Esnatu egin nau aitonaren gelatik datorren soinu batek. Ohetik altxatu naiz.

Izekorengana joan naiz aitonaren gelara. Ordenagailuan dago, mahaira eserita. Baina ez dago bere ordenagailuarekin, aitonarenarekin baizik. Irudi bat dago pantailan eta gerturatu egin naiz. Nire gurasoak dira. Baina beldurtuta nago: irudia ez da orain dela urte askokoa. Gurasoak gaztetako edo txikitako argazkietan besterik ez ditut ikusi orain arte. Desberdin daude. Ez dakit ezer ere nire gurasoei buruz. Aitonari galdetzen nion bakoitzean, gaia aldatzen zuen eta hori ez zitzaidan gus-tatzen. Nik jakin-min handia dut, eta hori asetzeko premia ere bai. Izeko konturatu egin da ni bere atzean nagoela argazkiari begira. Sustoa hartu du hasieran. Gero, aurpegia aldatu du. Ez dakit zer den, baina uste dut sekretu bat kontatu behar didala. Izeko serio dago.

—Miren, zerbait kontatu behar dizut zure gurasoei buruz...

Klara Puertas

Hezkuntzari kritika

Isiltasuna dago airean,
urduritasuna gelan,
azterketa bana mahaietan,
presioa burmuinean,
ezjakintasunaren beldurra
ondo idatzi nahiean,
gazteria handia garrasika
guztiak korridorean...
urruti bada beste soinu bat:
negar-hotsa komunean.

Komunetako izkinan nago,
malkoz beteta begia,
azterketekin ez dut ikusten
nire betiko irria,
emaitzak emango ote digu
zoriontasun guztia?
Gehiegizkoa da oraingo
hezkuntzaren garrantzia,
eskolak ez zaitzala kezkatu,
denok baitugu argia!

Doinua: Itsasoari begira

Kattalin Zinkunegi

Herriko plaza

Herriko plaza,
etxez,
ibai urdin batez
eta herritarrez
inguratuta dagoena,
milaka oriotar
jaiotzen, hazten, garatzen eta zahartzen
ikusi dituen.
Herriko plazak
ehunka gauza
bizi eta ikusi ditu,
alioia, festa, kontzertu...
hainbeste momentu ezin izango ditu
denak gogoratu.
Herriko plazari
berrikuntzak egin zaizkio,
beste hainbat urte,
tente egotea dagokio,
Orio herria lideratzen jarraitzeko.
Herriko plaza,
oriotarren lekurik
bereziarena
asperdurarengandik salbatzen
gaituena,
lagun berriak egiteko tokirik
errazena,
festak ospatzeko
ederrena.
Orioko plaza,
herriaren oinarria
herritarren irria,
besteen jaioterria.

Unai Lertxundi

Rec_23871

Recording

Kaixo, ni...

—Benetan hau egin behar dut? Tontakeria bat iruditzen zait.

—Joe, neska! Beti kexatzen ari zara! Esan genizun besteok idatziz egin genuela! Egin ezazu zuk ere horrela, eta utzi txorakeriak esateari.

—Ez ez! Horrela egingo dut! —zer pentsatzen du horrek, idazten hasiko naizela? Bai zera! Hasi gaitezen behingoz.

Ni, zera, ni...

—Uxuee!

—Ze gertatzen da orain?

—Ahal dut...?

—Nahi duzuna egiteko esan dizut, baina hasi zaitez behingoz, orduak emango digu eta.

Jolas moduko bat egingo dugu, nire istorioa kontatzen dizuedan bitartean: ez dizuet nire izena esango, ea asmatzen duzuen zein naizen.

—Ez zaie oso zaila egingo, zu ezagututa...

—Axola zaizu ez sartzea? Eskerrik asko.

Bueno, orain entzungo duzuen istorioa neurea da. Eta ez du ezaugarri berezi edo floripondiorik; sinonimoak eta horrelakorik. Beraz, nire euskaldun peto-peto hizkera jasateko prest ez bazaude...

—Euskaldun peto-peto! Bai, zera! Zuk, gainera! Euskañolez hitz egiten duzu eta!

—Zuk esaten baduzu...

Gauza bat dago argi: ez dudala esfortzu handirik egingo; beraz, berriro errepikatuko dut: nire euskañola jasateko prest ez bazaude, utzi diezaiokezu ikusi edo entzuteari.

Nire istorioa duela urte batzuk gertatu zen...

Aste santutako oporretatik bueltan, kuadrillari whatsapp bidali eta berekin geratu nintzen. Eguraldi ederra egiten zuen herrian, ondo gogoratzen dut: udabe-

rriko brisa zoragarriak nire ilea alde batetik bestera mugitzen zuen. Keratinazko tratamendua egin nuen oporretan eta, beraz, eguzki-izpiak zuzenean nire ilean islatzen ziren eta, horrela, nire ile bakoitzak urrezko hari fina zirudien...

—Benetan zure ileaz hitz egiten hasi behar duzu?

—Ez dago gauza hobegorik eta!

Jarrai dezagun. Nire ilea alde batera utziko dut, baina, zerbait gehiago jakin nahi baduzue, nire kanalean duzue nire errutina.

—Eta orain publizitatea ere egiten hasiko zara! Tira ez duzu erremed...

—Ixo! Utzi niri!

Arratsalde hartan nire bidaiaz hitz egin nuen. Aitortu behar dut nire lagunak ez zeudela oso gogotsu nire eskapadaren xehetasunak entzuteko, baina orduan nuen —tira, zuzenduko dut: orduan EZ nuen— enpatiarekin, niri bat. Dena azaldu nien, gehiegi *quizas*. Momentuan ez nintzen kontziente zer berekoia nintzen.

—Argi dago ezetz.

Nire lagunek nigatik egiten zituzten gauzak eta nik, berriz, ez nituen batere kontuan hartzen. Adibidez, arratsalde hartan berak geratu ziren nire arazoak entzuten, hondartzara joan beharrean.

Asteak pasa ziren, eta nik lehengo lepotik burua. Hasieran, ez nuen ulertzen zergatik nire lagunek ez zuten nahi nitaz ezer jakin. Gero ulertu nuen gauza txikiak zirela ni berengandik urruntzen nindutenak. Izan ere, diru dexente daukat, neukan —bueno, ez dakit, ez dut faltarik sumatu— eta, nahiz eta heziketa bat jaso, iruzkin klasistak egiten nituen nire lagunei buruz. Banekien gaizki zegoela, baina bro-matxo moduan egiten nituen. Ez nituen batere estimatzen nire lagunak, pentsatzen nuelako beti izango nituela denerako.

Argi daukat ez zela horrela izan. Udara iritsi zen eta, urtero bezala, nire etxeko festa prestatzen ari nintzen, piztzean eta bufetarekin. Ez zen horrela izan, taldera mezua bidali ondoren, ez zidaten erantzun. Haserre bizian, chatetik atera eta beste aplikazioetan sartu nintzen. Instagrameko istorioak ikusten hasi nintzen eta, bai, nire kuadrilla hondartzan zegoen. Ez zidaten abisatu eta, gainera, nire festara ez ziren etorri. Lagunez paso egin eta lehengusinari deitu nion. Haren Audi berrian joan ginen biok hondartzako txiringitora, eta han izan ginen nire lagunak hondartzatik atera arte. Haiengana gerturatu eta, mozola baten moduan, galdetu nien ea zergatik ez ziren nire festara etorri. Nahiago dut ez jarraitu, baina imajinatzen duzue esan zidaten guztia. Deskolokatuta geratu nintzen eta, nahiz eta ez antze-man, gaizki sentitu nintzen, oso.

Lurrak bueltaka jarraitzen zuen eta nik lehengusinarekin geratzea beste erremediorik ez nuen.

Normalean nire gurasoak ez ziren etxean egoten. Beraz, kalean ez nengoenean, Emiliarekin egoten nintzen, etxeko garbitzailearekin. Normalean, ez nengoen oso gustura harekin; gaizki ere ez, baina ez nengoen eroso. Nire galdera guztiei baietz erantzuten zien, arrazoia emanez. Beti nire iritzi bera izaten zuen eta ez zion nik esandako ezeri kontra egiten.

Nire gurasoek, egun guztian etxetik kanpo zeudela konpentsatzeko, nahi nituen *kapritxito* guztiak erosten zizkidaten; Louis Vuittonen poltsa, Gucciren kartera... Aitortu behar dut beti nengoela gurasoak ikusteko irrikan, baina, normalean, iritsi eta segituan joaten ziren. Plan asko prestatzen nituen, baina inoiz ez zuten denborarik egiteko.

Uztaila iritsi zen. Gurasoak etxera iritsi eta notizia bat eman zidaten: Afrikara joan behar genuen, amak han negozioak egin behar zituen eta. Zehazki, Ghana herrialdera joan behar genuen. Ama enpresa baten buru da. Ez dakit seguru zer egiten duen, baina inbertitzen duela badakit. Zertan, ez. Aukera eman zidaten joateko ala geratzeko eta joatea erabaki nuen. Azken finean, ez nuen zeinekin geratu eta aukera perfektua zen gurasoekin denbora pasatzeko.

Bidaia ez zen izan nik pentsatzen nuen bezalakoa. Bueno, bai, pentsatzen nuen, baina ez nuen nahi horrelakoa gertatzea. Hala ere, ohikoa zen niretzat...

—Oso interesgarria iruditzen zait, baina, inporta ez bazaizu, laburtu dezakezu pixka bat? Hamabost minututan geratu gara Julen eta besteekin.

—Bai, barkatu... Eske enrrollatzen naizenean, ezin dut gelditu. Non nengoen? A, bai!

Bueno, Afrikako bidaia ez zen okerreana izan, baizik gero etorri zena.

Oso azkar gertatu zen guztia niretzat, baina, era berean, mantso. Jakin nuen egunean, nire logelan sartu eta gau osoa egon nintzen zotinka negarrez; bai gau hartan eta bai hurrengo hilabeteko gau gehienetan. Malkoak inoiz baino bustiago sentitzen nituen, astunago. Masailetan behera erortzen ziren etengabe; gaziak ziren, gardenak, baina nik beltz kolorekoak sumatzen nituen. Nire azken itxaropenak hantxe zeuden: nire begietako malkoetatik oheko burko zuriraino joaten ikusten nituen, gero han desagertzeko. Jada ez zen burkoa, baizik-eta desiraz, amodioz eta tristuraz betetako itsaso zabal bat, gero eta zabalagoa. Egunero sentimendu berriz betetzen zihoan itsaso hura: haserrea, beldurra, deserosotasuna... Baina, gehien bat, beldurra. Egunero sentitzen nuen, eskolara joaterakoan, etxera bueltatzerakoan, gurasoak garrasika ikusterakoan. Ez nekien gauzak berriro lehen bezalakoak izatera bueltatuko ote ziren.

Presio handia sentitzen nuen gurasoengan. Bata edo bestea... edozer gauzatarako bat edo beste aukeratu behar nuen. Ezin zioten elkarri aurpegira begiratu. «A, zer zortea» esan zidan lehengusinak, jakin zuenean. «Orain guztia bi aldiz izango duzu: Olentzerotako opariak, bidaiak, arropa». Ez nion esan lehengusinari gauak negarrez pasatzen nituela, ume bat nintzela pentsatuko zuelako.

Barruan nuen ondoezak nire arima jaten zuen gutxinaka–gutxinaka. Ezin nuen inorekin partekatu eta, beraz, ideia txoroak pasatzen zitzaizkidan gauero burutik. Dena dela, pentsatzen nuen norbaiti mina egin niezaiokeela eta, hortaz, atzean uzten nituen pentsamendu haiek. Itxuraz, ez nion inori minik egingo, ez neukan inor eta, baina bazegoen pertsona bat beti nirekin egongo zena. Asko kostatu zitzaidan pertsona hori zein zen jabetzea eta, noski, laguntzarekin egin behar izan nuen. Horrela ezagutu nuen Julen, nire bikotea. Ez, ez zen bera beti nirekin egongo zen pertsona, baina bera izan zen momentu hartan, hura guztia gainditzen lagundu zidana.

Ezagutu nuenean, bazuen neska-laguna eta momentu hartan lagunik onenak soilik ginen. Lia joan egin zen, Veneziara, eta Julen eta bion arteko kimika gero eta indartsuagoa zen. Jendeak pentsatzen zuen, eta pentsatzen segitzen du, batera gaudela, bikote popularra izateko; baina ez da horrela. Julen ezagutu nuenean —berak ezagutu ninduenen— oso desatsegina izan zen. Ni, momentu hartan, ez nengoen nire onenean. Zubira igota nintzen eta orduan...

—Ez nekien hain gaizki pasa zenuenik zure gurasoen banaketagatik.

—...

—Ez duzu jarraitu behar, ez baduzu nahi.

—Lasai, besarkada bat besterik ez nuen behar.

Hantxe zegoen Julen. Berak eman zuen nigatik atzera urratsa, beranduago damutu behar nuen zerbaitera. Bere laguntzarekin egoerari aurre egin nion eta ondo iruditzen zitzaidanagatik borrokatzen erakutsi zidan. Biok bakarrik jakitea erabaki nuen; bueno, orain arte. Oraindik gogorrena egiten dut jende artean, baina benetako lagunak badakite nolakoa naizen.

—Arrazoi guztia dauka. Nik, hasieran, borde hutsa zela pentsatzen nuen.

—Ikusten duzue, ez du berak ere sinesten.

Julenekin ateratzen hasitakoan, haren kuadrillarekin geratzen hasi nintzen. Gutxinaka, elkarri konfiantza eskaintzen joan ginen eta, horrela, nire lagun kuttunak bihurtu ziren. Adibidez, Uxue. Lehen esan dudan bezala, beti izango duzu norbait zure ondoan. Niri asko kostatu zitzaidan ohartzea, baina, pasatutako egoeraren ostean, argi daukat nahiz eta familia eduki, edo lagunak, zu zeu zarela beti izango duzun pertsona bakarra, egoera guztietan.

Zeure burua zaintzea garrantzitsua da, zuk lortzen duzulako lortutakoa, eta zu zarelako zer egin nahi duen erabakitzen duena. Horrekin ez dut esan nahi ez dugula behar laguntzarik. Guztiok behar dugu laguntza eta ez dago gaizki hori aitortzea. Inork ez du nahi bakarrik sentitu, baina inor ez dago bakarrik: denok dugu gure burua eta garrantzitsua da den bezalakoa onartzea.

—Hara! Ederra eman diguzun hitzaldia.

—Zer uste zenuen, *sin mas* egin behar nuela? Ez, ez! Nik gauzak egin behar baditut ondo egingo ditut.

—Ikusten? Azkenean, ez zara hainbeste aldatu.

—Ja, ja! Zer graziosoa!

Zorionez, geroztik dena ondo joan da. Betiko haserreak edukitzen jarraitzen dut, baina lagunak, familia eta neure burua zaintzen ikasi dut. Beraz, oraingoz ez dugu zertan kezkatu beha...

—Neskak!

—Zer egiten duzu hemen, Liher? —Lasai, orain jarraituko dugu istorioarekin.

—Oso larria da... Eta zer demontre ari zara egiten, Paula? Zeinekin hitz egiten duzu?

—Baina, zer mozoloa zaren. Nire jolasa izorratu duzu. Orain badakite nire izena. Eta, Uxue, zuk zergatik egiten duzu barre?

—Bueno... tira, Liher... Zer da hain garrantzitsua, «Paularen superjolasa» izorratzeko?

—A, bai! Ez duzue sinetsiko!

—Seguru tontakeria bat dela! Ikusiko duzu, Uxue!

—Utzi, baina, kontatzen gizajoari! Segi, Liher!

—Eskola botako dute!

—Zer? Uxue, ez zaitu harritzen?

—Zurrumurru asko dira herrian, baina ez dakigu ziur ezer. Gainera, ezinezkoa da eskola botatzea. Non ikasiko genuke?

—Ez, ez! Orain ari dira! Herri osoa pilatu da han, baina inork ez du ezer egiten gelditzeko.

—Baina ze ordutan botako dute?

—Gutxi gorabehera, hemendik 15 minutura.

—Oraindik denbora dugu! Goazen! Azkar! Eta besteak?

—Lehenago abisatu ditut. Bidean doaz. Etorriko zara, ezta, Paula?

—Bai, itxaron behean! Kamera itzaliko dut.

Stopped

Itxaso Ayerbe Cisneros

